

2006ko EKAINAREN 14ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, bi mila eta seiko ekainaren hamalauan, goizeko zortziak direnean, Alkatea: Joseba Egibar Artola; Udalkideak: Patxi Ezkiaga Ormazabal, Xabier Arrese Arratibel eta Jose Antonio Imaz Insausti; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTEN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioaren aktei ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu dira.

2.- UDALHITZ

Alkateak, hitza harturik, Funtzionario eta Euskal Toki Erakundeetako lan-kontratudun pertsonalarentzat baldintzak arautzen dituzten Akordio eta Hitzarmena, Udalhitz, Oinarrizko Protokoloa eta Udalean onartuak dauden hobekuntzen eranskina aurkeztu ditu.

Gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Funtzionario eta Euskal Toki Erakundeetako lan-kontratudun pertsonalarentzat baldintzak arautzen dituzten Akordio eta Hitzarmena, UDALHITZ, Oinarrizko Protokoloa eta Udalean onartuak dauden hobekuntzen eranskina, aho batez onartua izan da.

3.- AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETA 1-2006

Lizartzako Udal honen 2006ko Aurrekontuaren barnean Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez izapidetzen den Kreditu-Aldaketarako espedientearen berri eman ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri ondoren, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion indarreko araudiari egokitzen zaiola eta, hortaz, bere aldeko txostena ematen baitu.

Onespena proposamena formulatzen duen Ogasun Batzordeak emandako aldeko irizpena irakurririk.

ERABAKI DA:

- 1.- Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako espedientea onestea, 99.259,56 €-tako zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera-orriskari ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.
- 2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da onetsitako Kreditu-Aldaketa Fondon Kontuhartzailtza Zerbitzuek Kontabilitatean berehalako ondorioekin isla dezaten.

4.- **2005 URTEKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ETA KONTU OROKORRA**

ALKATETZAREN DEKRETUA

Idazkari-Kontuhartzaileak osatu duen, Lizartzako Udaleko 2005eko aurrekontuaren likidazioa eta horren dokumentuak aztertu ondoren, eta beraiekin ados egonik, Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Entitate Lokalen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, hau

EBATZI DUT

Lehena.- 2005eko Lizartzako Udaleko Aurrekontuaren Likidazioa onartzea.
Hona hemen horren laburpena:

KONTZEPTUA	PARTZIALA	GUZTIRA
Altxortegiko Izakin Likidoak 2005-12-31ean		82.496,71
Kobratu Gabeko Saldoak, 2005-12-31ean	-----	
Kobratu Gabeko Saldoak, itxitako ekitaldikoak	108.636,97	
Kobratu Gabeko Saldoak, Aurrekontuz Kanpok.	2.729,67	111.366,64
DENERA		193.863,35
Ordaindu Gabeko Saldoak, 2005-12-31ean		- 57.937,17
Aurtengo Ekitaldikoak	19.846,39	
Itxitako Ekitaldikoak	29.250,00	
Aurrekontuz Kanpokoak	8.840,78	
ALTXORTEGI-GERAKIN GORDINA		135.926,18
Saldo Kobragaitzak		-----
Altxortegi-gerakin likidoa		135.926,18
Finantzaketa lotua duten gastuetarako altxortegi-gerakina		-----
Gastu Orokorretarako Altxortegi Gerakina		135.926,18

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio-espeditentearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako foru arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzarrari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

KONTU OROKORRA

Lehendakari jaunak hartu du hitza eta 2005 ekitaldiko Aurrekontuaren eta Ondarearen Administrazioaren kontuak aztertzeari ekingo zaiola esan du, guztiak ere jendaurreko erakustaldian jarriak eta Kontuen Batzorde Bereziak aztertutakoak, Batzorde honek dagokion espeditentean agertzen diren erregelamenduzko txostenak igorri dituelarik.

Idazkariak txosten horien irakurketa azkarra egin ondoren, eta kontu horiek erregelamenduzko ereduak betetzen dituztela eta behar besteko frogagiriak dituztela egiaztatuta, horiei buruzko informazio zabala eskuratu, eta

bertaratutako jaun-andreek eskatutako azalpen guztiei erantzuna eman zaielarik, aho batez onartu egin dira.

Bertara etorritako jaun-andreei ohartarazi zaie 781/1986 Legegintza Errege Dekretuaren 460-5 artikuluari jarraiki, nolnahi ere, Kontu Epaitegiaren kanpo fiskalizazioaren menpe jarri behar direla eta aipatu artikuluko horren aplikazioan, kontuak onartzeagatik erabakiak, akats eta oztopoen zuzenketak hala nola okerrak konpontzeko prozedurak, betearazleak izango direla.

5.- UDALBIDE – 2006

AURRETIKOAK

I

UDALBIDE Elkarlan Elkarteari dirulaguntza emateko proposamenaren berri ematen da; delako elkartearen xede nagusiak dira euskara babestu, garatu eta sustatzeko elkartasun fondoak eratzea eta euskal lurralde guztietako udal eta herritarren arteko harremana bultzatzea; hartara, helburua du ekimenak sustatzea hizkuntza, kultura, kirola, ingurugiro, lurralde antolaketa, ekonomia, garapena eta gizarte ongizate esparruetan, baita udalerriekumenak esleituak dituzten gainerako gaietan ere.

II

Egiaztatu da kreditu egokia eta behar adina dagoela, dirulaguntza emateak berarekin dakartzan betebeharrak ekonomikoei aurre egiteko.

III

Udal honetako aurrekontuen betearazpen oinarrietan UDALBIDE Elkarlan Elkarteari alde dirulaguntza emateko aurreikuspena ezarri da, izen eta guzti ezarri ere, eta egiaztatu da elkartearen xedeak bat datozeela udal eskumenekin,

eta horrek frogatzen du bete egiten dela interes publiko eta sozialarekin bat etortzeko baldintza, huraxe baitute xede bai udalerrri honek bai aipatu elkarteak.

ZUZENBIDE OINARRIAK

Ikusirik indarra duten arauen artean aplikatu beharrekoak, bereziki UDALBIDE Elkarlan Elkartearen Estatutuak eta haren sarrera Bazkunen Erroldan, eta orobat ikusirik Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra eta Toki Erakundeen Zerbitzu Arautegia.

Udalak, oso bilkuran ebatzita, aho batez ERABAKI DU:

- 1.- UDALBIDE Elkarlan Elkarteari zenbateko honetako dirulaguntza ematea: BI MILA ETA BERREHUN (2.200,00) €, 2006ko ekitaldirako jarduketa programan aurreikusita dauden jarduerak finantzatzeko, indarra duen antolamendu juridikoarekin eta udal eskumenarekin bat baitatuz jarduera horiek.
- 2.- Ebazpen hau jakinaraztea bai UDALBIDE Elkarlan Elkarteari, bai Udalaren Diruen Kontu Hartzailtzari.
- 3.- UDALBIDE Elkarlan Elkarteari onetsitako zenbatekoa ordaintzea, dirulaguntzaren baldintzak arautzeko hitzarmen bat aldeztu aurretik sinatuta.

6.- ALHONDIGA (UDALETXE ZAHARRA) ERAIKINAREN KALIFIKAZIO JURIDIKOA ALDATZEA

Alkatearen, 2006ko maiatzaren 10eko barne-aginduren bitartez, ALHONDIGA (UDALETXE ZAHARRA) ondasunaren kalifikazio juridikoa aldatzeko espedienteari hasiera eman zaio. Ondasunaren kalifikazio juridikoa aldatzea herritarren onuragarri izango da.

Beraz, Udalbatzak onar dezan hauxe PROPOSATZEN DUGU:

1.- ALHONDIGA (UDALETXE ZAHARRA) ondasunaren kalifikazio juridikoa aldatzea. Hau da, jabari publikoko ondasuna izatetik ondare-ondasuna izatera pasatzea.

Kalifikazio juridikoa aldatzeko arrazoiak hauek izan dira:

Eraikuntza horren gaur egungo egoera aztertzen badugu, konturatzen gara, ez duela inolako erabilerarik, hau da: Euskaltegia, ez da horretarako erabiltzen, beheko solairuan zegoen harategia itxi egin da eta eraikinean dagoen etxebizitzan bizi direnei, Sendagilearen Kontsulta deritzon eraikinean berregokitu den etxebizitzara aldatzeko aukera eman zaie, eta hori, lehenbaitlehen gauzatzea espero da.

Alhondiga (Udaletxe Zaharra) eraikinari buruzko azterketan argi geratu zen, Alhondiga (Udaletxe Zaharra) eraikinak ez zuela inolako biabilitaterik.

Urondoa Kaleko babes ofizialeko etxebizitzak egiterakoan, hainbat herritar promozio horretatik kanpo gelditu ziren, gutxieneko baldintzetara iristen ez zirelako, eta hori kontutan hartuta, Alhondiga (Udaletxe Zaharra) eraikinean etxebizitzak egiteko beharra, Lizartzako Laguntzako Arauen Berrikuspenean jaso zen.

2.- Ondasunaren kalifikazio juridikoa aldatzeko erabakia jendaurrera zabaltzea hilabetez, udaletxeko iragarki-oholean jarriz eta lurraldeko aldizkari ofizialean argitaratuz, erabakiaren aurkako arrazoibiderik inork aurkeztu nahi badu ere.

3.- Kalifikazio juridikoa aldatzeko erabakia jendaurrera zabaltzeko ondoren, aurkako arrazoibiderik inork aurkezten ez badu, erabakia behin betikotzat jotzea.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartzea erabaki da.

7.- A-2 HIRIGINTZA HITZARMENA

LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOAK BERRIKUSTEKO ESPEDIENTEAREN BARRUAN, A.2 ZERRATEGI ALDEA EREMUAREN ANTOLAMENDUA ZEHAZTEKO HIRIGINTZAKO HITZARMENA.

LIZARTZAKo udaletxean, 2006ko ekainaren 8an.

ONDOKOAK BILDUTA:

Batetik, Joseba EGIBAR ARTOLA jauna, LIZARTZAKo Udaleko Alkate-Udalburua den aldetik.

Bestetik, Ines Olaetxea Carrera andrea, adinez nagusia, 73.431.424-P zk.-ko nortasun-agiria duena; Josefina Olaetxea Carrera, adinez nagusia, 15.929.979-K zk.-ko nortasun-agiria duena; Milagros Aizpurua Alkorta andrea, adinez nagusia, 15.217.897 zk.-ko nortasun-agiria duena; Mariano Urbizu Zabala jauna, adinez nagusia, 15.869.031-C zk.-ko nortasun-agiria duena; Juan Carmelo Goikoetxea Goikoetxeaundia jauna, adinez nagusia, 72.425.671 zk.-ko nortasun-agiria duena; Gaspar Barriola Irazusta jauna, adinez nagusia, 15.218.004 zk.-ko nortasun-agiria duena; Teresa Sagardogi Garmendia anderea, adinez nagusia, 72.415.198-C zk.-ko nortasun-agiria duena; Nicolás Bengoetxea Altuna jauna, adinez nagusia, 15.218.018 zk.-ko nortasun-agiria duena; Juana Francisca Bengoetxea Altuna anderea, adinez nagusia, 15.179.980-A zk.-ko nortasun-agiria duena; Tomasa Bengoetxea Altuna, anderea, adinez nagusia, 15.218.020 zk.-ko nortasun-agiria duena; Josefa Bengoetxea Altuna anderea, adinez nagusia, 15.218.018-E zk.-ko nortasun-agiria duena; Jesús Maria Bengoetxea Altuna jauna, adinez nagusia, 15.218.017 zk.-ko nortasun-agiria duena; Isabel Bengoetxea Altuna anderea, adinez nagusia, 72.509.867; zk.-ko nortasun-agiria duena; Jose Antonio Bengoetxea Altuna jauna, adinez nagusia, 72.509.895 A zk.-ko nortasun-agiria duena; Jose Ramon Bengoetxea Altuna jauna, adinez nagusia, 72.416.770 zk.-ko nortasun-agiria duena; Pedro Maria Bengoetxea Altuna jauna, adinez

nagusia, 15.878.875-C zk.-ko nortasun-agiria duena; Maria Jose Bengoetxea Altuna anderea, adinez nagusia, 15.890.452 zk.-ko nortasun-agiria duena; guztiek ere helbide hau dute ohartarazpenak jasotzeko: Iribarren Etxea 2, Lizartza; Arantxa Arrospide Arrate anderea, adinez nagusia, 15.924.336-X zk.-ko nortasun-agiria duena, ohartarazpena jasotzeko helbidea: Zubiaurre Etxea, 1-bh ezka- Lizartza; Miguel Maria Arozena Etxeberria jauna, adinez nagusia, 72.424.478-P zk.-ko nortasun-agiria duena, ohartarazpena jasotzeko helbidea: Zortziko Etxea, 1-3-a A- Lizartza; Jose Francisco Soroa Ibarluzea jauna, adinez nagusia, 15.983.727-S zk.-ko nortasun-agiria duena, ohartarazpena jasotzeko helbidea: Zubiaurre Etxea, 2-1.a esk- Lizartza; Jose Antonio Gogorza Balerdi jauna, adinez nagusia, DNI 72.509.871-W zk.-ko nortasun-agiria duena, ohartarazpena jasotzeko helbidea: Plaza Ondo, 2-2.a- Lizartza; Matías Mendigain Luluaga jauna, adinez nagusia, 15.218.178-K zk.-ko nortasun-agiria duena, ohartarazpena jasotzeko helbidea: Zubiaurre Etxea, 2-1.bh esk- Lizartza; Santiago Mendigain Luluaga jauna, adinez nagusia, 15.223.570 P nortasun-agiria duena, ohartarazpena jasotzeko helbidea, Nafarroa Etorbidea, 16 – Tolosa; Ana Isabel Beldarrain Altuna anderea, 72.437.333-Y zk.-ko nortasun-agiria duena, ohartarazpena jasotzeko helbidea: Kale Nagusia 21-1.a-Lizartza; eta Nerea Altuna Zubeldia anderea, adinez nagusia, 72.445.571-X zk.-ko nortasun-agiria duena, ohartarazpena jasotzeko helbidea: Txirrita Gudariaren Plaza, 9-1.a B Lizartza.

ONDOKO EK HARTU DUTE PARTE:

Egibar jaunak LIZARTZAko Udalaren izenean, udal horretako alkate-udalburua den aldetik.

Olaetxea, Olaetxea, Aizpurua, Urbizu, Goikoetxea, Barriola, Sagardogi, Arrospide, Arozena, Soroa, Gogorza, Mendigain, Mendigain, Beldarrain, Altuna eta Bengoetxea Altuna anai-arreba jaun-andreak, beren izenean, Lizartzako Udalarekin batera Lizartzako Arau Subsidiarioak Berrikusteko agirian agertzen den A.2 ZERRATEGI ALDEA eremuko jabe diren aldetik.

Bi aldeek onartu egiten dute besteek adierazitako ordezkapena eta, horri jarraiki, hirigintzako hitzarmen hau formalizatu dute, ondorengo aurrekariei jarraiki:

AURREKARIAK

Lehena: Olaetxea, Olaetxea, Aizpurua, Urbizu, Goikoetxea, Barriola, Sagardogi, Arrospide, Arozena, Soroa, Gogorza, Mendigain, Mendigain, Beldarrain, Altuna eta Bengoetxea Altuna anai-arreba jaun-andreak Lizartzako Arau Subsidiarioetako A.2 Zerrategi Aldea eremuan dauden lursail guztien jabeak dira, Lizartzako Udalarekin batera. Arau subsidiario horiek behin-behineko onarpena jaso gabe daude oraindik.

Bigarrena: Ereku horretan kokatuko da hirigunearen zabalkuntzaren zati handiena eta kale berri bat sortuko da Elbarrenaren eta Araxes ibaiaren paraleloan, horrela, bide-sarea osatuz. Kale horren inguruan egituratuko da Txirrita Gudarien Plazarekin lotura izango duen espazio libre publiko berria, eta, horrela, oinezkoentzako pasealeku bat sortuko da Araxes ibaiaren ertzean. Pasealeku horrek lotura izango du espazio libre berriarekin eta hirigunean zehar Araxesen ertzean egingo den pasealekuarekin. Ereku horretan kokatuko da, gehienbat, Lizartzan garatu litekeen etxebizitza-parkea eta, gainera, ikastetxe berri bat egiteko asmoa dago, halaber.

Hirugarrena: Egitasmoa jendaurrean jartzeko epean hainbat alegazio aurkeztu dira esparru hau dela eta. Horregatik, A.2 eremuari dagozkion zehaztapenak eta berau kudeatu eta antolatzeko modua esparruaren jabeekin adostea beharrezkoa zela ikusi da, xehetasun horiek behin betiko agirian jasotzeko, bideratzen ari den agiriari segurtasun juridiko handiagoa ematearren. Izan ere, eremuko zehaztapenek berebiziko garrantzia izango dute antolamendu berrian, Lizartzako herriarentzat guztiz beharrezkoak diren jarduketak egingo baitira: ikastetxe berri bat eraikiko da eta

handitu egingo da etxebizitza babestuen eskaintza, esate baterako.

Laugarrena: Zehaztapen berri hauen bidez, hasieran onartutako agirian aurrikusitakoa baino 6 etxebizitza gehiago eraikiko dira, 50etik 56ra igoz kopuru osoa eta 14tik 26ra babestuak. Interes publikoaren onerako izango da aldaketa hori.

Bideratzen ari den plangintza-agiriko jarduketa garrantzitsuena etxebizitza horien eraikuntza denez, berau bi fasetan egitea komeni dela ikusi da, eraikitzeke dauden aukera guztiak jarduketa bakar batean ez agortzeko. Honela, fitxetan proposatutako bi etxebizitza blokeetatik, bata etxebizitzak babestuak hartuko ditu, eta besteak askeak.

Bosgarrena: Arau subsidiarioen agiria idatzi zuen taldeak proposamen berria osatu du A.2 eremuko zehaztapenak jasoaz. Bertan, Udalaren iritziz interes publikoaren onerako izango diren hainbat aldaketa egin dira aurreko antolamenduan, eta hori guztia hitzarmen honi datxekion fitxa berrian zehaztu da.

Aurreko guztiari jarraiki, bi aldeek HIRIGINTZAKO HITZARMEN hau sinatu dute, ondorengo baldintzetan oinarrituz:

BALDINTZAK

Lehena: Bi aldeek onartu egiten diote elkarri agiri-hitzarmen hau sinatzeko eta emateko duten legezko ahalmena eta berau fede onez betetzeko konpromezua hartzen dute.

Bigarrena: Hitzarmenaren xedea

Hirigintzako hitzarmen honen xedea hau da: Lizartzako Udalaren eta Olaetxea, Olaetxea, Aizpurua, Urbizu, Goikoetxea, Barriola, Sagardogi,

Arrospide, Arozena, Soroa, Gogorza, Mendigain, Mendigain, Beldarrain, Altuna eta Bengoetxea Altuna anai-arreba jaun-andreen artean Lizartzako Arau Subsidiarioak Berrikusteko agirian A.2. ZERRATEGI ALDEA eremurako jasotako zehaztapenak eta beroien kudeaketa eta garapena adostea.

Hirugarrena: Udalak hartutako konpromezuak.

Lizartzako Udalak, hirigintzako hitzarmen honi jarraiki, ondorengo zehaztapenak betetzeko konpromezua hartzen du, A.2. eremuari dagokion fitxa berria gehituz:

- 1) Lursaila lurzoru hiritar ez finkatutzat sailkatuko da, eta bizitegietarako erabilera orokorra izango du. 56 etxebizitza egin ahal izango dira, eta horietatik 26ek babes ofizialeko erregimenean egon beharko dute. Ikastetxe bat hartzeko eraikin bat egiteko asmoa dago.
- 2) Eremu honetan 14.065 m²-ko exekuzio-unitate bakar bat definitu da. Hiru lursailetan banatuko da eremua, eta eraikitzeko parametro hauek izango dituzte hiru lursail horiek:

-A.2.1 eta A.2.2 lursailak:

Erabilerak: garaje eta trastelekuak sotoetan eta etxebizitzak gaineko solairuetan.

Lursailaren azalera:

A.2.1 lursaila: 1.130 m².

A.2.2 lursaila: 1.200 m².

Sestra gaineko okupazioa gehienez ere:

A.2.1 lursaila: 900 m².

A.2.2 lursaila: 775 m².

Sestra azpiko okupazioa gehienez ere:

A.2.1 lursaila: 1.545 m².

A.2.2 lursaila: 935 m².

Sestra gainean eraikitako azalera gehienez ere:

A.2.1 lursaila: 3.240 m².

A.2.2 lursaila: 2.670 m².

Lursail azpian eraikitako azalera gehienez ere:

A.2.1 lursaila: 1.545 m².

A.2.2 lursaila: 935 m².

Merkataritzarako azalera:

A.2.1 lursaila: 220 m².

A.2.2 lursaila: 180 m².

Profila: sotoa, behe solairua, goiko solairu bi eta teilatupea, gutxienez 2,5 m atzera eramana, honi datxekion eskemari jarraiki.

Gehienezko altuera: 12 m. teilatu hegalaria eta 14 m. argi-zulora, fatxada nagusiaren erdigunean.

Teilatu-hegalaren gehienezko hegada: 1 m.

Gehienezko hegada irekiak: 1,2 m fatxada nagusietan bakarrik, eta fatxadaren luzeraren %50 gainditzen ez duen gehienezko luzera.

Gehienezko hegada itxiak: 0,8 m.

Gehienezko etxebizitza kopurua:

A.2.1 lursaila: 30

A.2. lursaila 2: 30

Etxebizitza bakoitzeko gutxieneko garaje-lekuak: 1

- A.2.3 ikastetxerako lursaila:

Azalera: 1.800 m².

Erabilera: ikastetxe publikoa. (Horretarako beharrik egonez gero, eta behar horiek behar bezala justifikatuz gero, Udalak beste erabilera publiko hauetarako erabili lezake lursail hau: kultura, gizarte-zerbitzuak, administrazio-lanak).

Sestra gainean eraikitako azalera gehienez ere: 1.200 m².

Gehienezko profila: sotoa, behe solairua eta goiko solairu bi.

Laugarrena: Lursailen titularren konpromezuak.

Jabeen konturakoak izango dira A.2 eremuko eraikuntza-lanei lotutako hirigintza alorreko karga eta betebeharrak:

- Lurzorua lagatzea espazio publikoak, hornidura-erabilerak, lorategiak, etab. egiteko, agiri honi datzekion dokumentazio grafikoan adierazitako moduan.
- Lagapen horien urbanizazioa, agirian finkatutako kotei jarraiki.
- A.2 eremuari dagokion irabazizko aprobetxamenduaren %10 Udalarari lagatzea.

Bestalde, hitzarmenaren sinatzaileek, A.2 eremuko lursailen jabeak diren heinean, edota jabe bezala beren eskubideak hartzen dituzten pertsona fisiko

edo juridikoak, 2.2 partzelari dagokion urbanizazio kargak bere gain hartuko dituzte, honela, Lizartzako udalari, inolako zamarik gabe esleituko zaio.

Bosgarrena: Exekuzio unitate bakarra definitzen da. Unitate honetan kudeaketa sistema modura konpentsazioa erabiliko da. Eremua garatu ahal izateko dagokion Konpentsazio Proiektua onartu beharko da.

Xehetasun azterlan baten bidez, unitatearen lerrokadura eta sestrak aldatu ahal izango dira, beti ere, espazio publikoei dagokien azalera txikitu gabe.

Seigarrena: Urbanizazio proiektu bakar bat egin beharko da eremu honetako zoru publiko guztia hartuko duena. Bide eta pasealeku publikoen lerrokadura eta sestrak eremu honi dagokion fitxan agertzen direnak izango dira. Urbanizazioaren kota, inguruneko herri egitura kontsolidatuaren baitan egokituko da. Egin berri den Azterlan hidraulikoaren arabera, 35,35 mko kotatik gora kokatu beharko da urbanizazioa.

Garajetarako sarrerak eraikin barruan kokatu beharko dira. Ezingo dute lurzoru publikoa okupatu.

Estudio hidraulikoak eskatzen duen kotara altxatzeko, ibai ertzeko landare eta zuhaitzak babesteko urbanizazioa atzeratuko da eta goikaldean eskoilera baten bidez egungo kota altxatuko da.

Eraikinak, gutxienez 16,00m baztertuko dira ibai ertzetik.

Zazpigarrena: Lizartzako Udalak, barrutian duen aprobetxamendua, etxebizitza babestuak egingo diren blokean gauzatuko du. Bloke hau 2.2 partzelan kokatuko da. Udalari dagozkion etxebizitza babestuak egoki iruditzen zaion momentuan, egin ahalko ditu, beti, herriaren interesei arabera. Partzela honi dagozkion urbanizazio zamak,

eremuaren beste jabeen kargu izango dira, eta Lizartzako udalari, kontzeptu horregatik, ezingo zaio inolako kosturik leporatu.

Arauk onartu eta lehenengo laurtekoan, ezingo da A.2 eremuaren eraikigarritasun osoaren % 65a gainditu. Lehenbizi, etxebizitza askeko blokea eraikiko da, eta etxe hauen eraikigarritasun osoa agortzen denean, etxebizitza babestuekin hasiko da.

Zortzigarrena: Egitekoa den ikastetxeko ekipamendua azkar batean, ondo eta guztiz egin ahal izateko, A.2 eremuko jabeek konpromezua hartzen dute, hitzarmen hau sinatu ondoren, A.2.3 eskolako lursailaren (agiriari atxikitako fitxan zehazten dena) gaineko titulartasuna Udalari, lagatzea, ondoren Eusko Jaurlaritzaren esku uzteko.

Lagapen honek, 1998ko apirilaren 13an, onartutako Lurzoruaren Erregimena eta Baliospenetako 6/1998, Legeak, bere 14.2 artikuluan, lurzoru hiritar ez finkatutarako dituen legezko lagapenen aurrerakin izaera du, eta Lizartzako Arau Subsidiarioak Berrikusteko Espedientearen Barruan, A.2 ZERRATEGI ALDEA Eremuaren exekuziorako aurrikusitako Berdinbanaketa Egitasmoan jasoko da.

Berdinbanaketa egitasmoa behin betikoz onartu haurretik, Lizartzako Udalak, lagapena eskritura publikoan formalizatu nahiko balu, Jabetza Erregistroan inskribatu arte sortutako gastu guztiak, bere kontura izango dira.

Bederatzigarrena: Bi aldeek konpromezua hartzen dute finkatutako hirigintza-arauketa berria bultzatu eta babesteko, atzerapenik gabe, eta hitzarmen honek akordioko alderdi nagusiak arautzen dituela onartuz. Hala, jabeek ez dute

helegiterik aurkeztuko, ez administrazio bidetik ez epaitegien bidetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak A.2 Zerrategi Aldea eremuari buruzko agiri honetan adostutakoari dagokionez onartzen duen behin betiko agiriaren aurka.

Hamargarrena: Hitzarmen honek Lizartzako Udaleko udalbatzaren osoko bilkuraren berrespena jaso behar du baliozkoa izateko.

Osoko bilkurak hitzarmena berretsi ondoren, hitzarmen hau Lizartzako Arau Subsidiarioen Behin Behineko Onarpenerako Agiriari gehituko zaio, behin betiko onarpena emateko eskumena duen organoari bidaltzeko.

Hamaikagarrena: Kontratu hau betetzearen inguruan sortutako auzi guztiek izaera juridiko-administratiboa izango dute, 1/1992 Legegintzako Errege Dekretuko 303. artikuluan aurrikusitakoari jarraiki, eta administrazio-auzietarako jurisdikziora bideratuko dira.

Agiri honetan jasotakoarekin bat datozela eta onartzen dutela erakusteko bertaratutako bakoitzak agiriaren ale bana sinatu du, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Lizartzako Udalaren eta Arau Subsidiarioetako A-2-ko lurjabeen arteko Hirigintzako Hitzarmena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

Era berean, Udaleko Alkate-Lehendakaria den, Joseba Egibar Artola-ri ahalmen osoak ematea erabaki da, Hitzarmen hori sinatu ahal izateko.

8.- LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BEHIN BEHINEKO ONARPENA

Udal honek, bi mila eta bosteko martxoaren hamalauan, eginiko Bilkura Nagusian, Lizartzako Arau Subsidiarioen Berrikuspenari lehen onarpena eman zion.

KONTUTAN HARTUAZ.- Erabaki hori, 2005eko Martxoaren 22ko 55 Zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2005eko Martxoaren 23ko Berria BERRIA egunkarian argitaratua eta epearen luzapenari buruzko iragarkia, 2005eko Maiatzaren 19ko 93. zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta 2005eko Maiatzaren 20ko BERRIA egunkarian argitaratua egon dela, guztira, BI HILABETEKO epean, hau da: 2005eko Martxoaren 24tik, 2005eko Ekainaren 23 bitarte, epe horretan alegazio hauek jaso direlarik:

- 1.- MANUEL ETXAIDE ALUSTIZA, Construcciones Manuel Etxaide S.L.ren izenean – (2005-04-07)
- 2.- J. ROKE REZABAL – ONDARE HISTORIKOAREN ZERBITZUA – GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA - (2005-04-19)
- 3.- JOSE MARI OLAZABAL, GIPUZKOAKO BASO ELKARTEAren izenean - (2005-04-28)
- 4.- MILAGROS AIZPURUA ALKORTA - (2005-04-28)
- 5.- MARIANO URBIZU ZABALA - (2005-04-29)
- 6.- JAVIER MALCORRA ARSUAGA, AGUA DE INSALUS S.A.ren izenean - (2005-05-03)
- 7.- JOSE JULIAN ZINKUNEGI AGIRRE eta MIGUELJOSE ETXEBERRIA LULOAGA - (2005-05-03)

- 8.- A-2 ZERRATEGIKO LUR SAILEN JABEEK – (2005-05-03)
- 9.- LIZARTZAKO BIZTANLE ETA AFEKTATUAK – (2005-05-03)
- 10.- JUAN CARMELO GOIKOETXEA – (2005-05-03)
- 11.- ENBA – EUSKAL NEKAZARIEN BATASUNA – (2005-05-04)
- 12.- A-2 ZERRATEGIKO LUR SAILEN JABEEK – (2005-06-23)
- 13.- MILAGROS AIZPURUA ALKORTA – (2005-06-23)
- 14.- AXURDARIO HERRI PLATAFORMA – (2005-06-23)
- 15.- EIZ-ETXE S.L. (2005-06-23)

Era berean Lizartzako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Lehen Onarpena, jendaurrean egon zen epealdian, hainbat alegazio jaso ziren.

Pilar Azurmendi Etxegarai Arkitektoak, alegazio hoiak aztertu ondoren, A-1-2, A-2, A-4-6 eta U-1 Industrialdeko eremuetan hainbat funtsezko aldaketa egitea proposatu zuen.

Hori dela eta, Udal honek, bi mila eta seiko otsailaren hogeian, eginiko Bilkura Nagusian, Lizartzako Arau Subsidiarioen Berrikuspenen Aldaketei lehen onarpena ematea erabaki zuen.

KONTUTAN HARTUAZ.- Erabaki hori, 2006ko martxoaren 6ko 44 Zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2006ko martxoaren 7ko BERRIA egunkarian eta 2006ko martxoaren 7ko Hitza egunkarian, argitaratua egon dela, HILABETEKO epean, hau da: 2006ko martxoaren

8tik, 2006ko apirilaren 12 bitarte, epe horretan alegazio hauek jaso direlarik:

- 1.- MILAGROS AIZPURUA ALKORTA – (2006-04-04)
- 2.- MARIANO URBIZU ZABALA – (2006-04-06)
- 3.- JESUS URRATE – (2006-04-10)
- 4.- LURRA PROMOCIÓN Y GESTIÓN S.L. – (2006-04-11)
- 5.- CARMELO GOIKOETXEA GOIKOETXEAUNDIA – (2006-04-11)

KONTUTAN HARTUAZ.- Lizartzako Arau Subsidiarioen Berrikuspen Dokumentua jendaurrean egon den epealdian, jasotako alegazioei buruz, teknikariak luzatutako txostena:

LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPEN DOKUMENTUARI EGINIKO ALEGAZIOEI BURUZKO TXOSTENA

Lehen onarpena jaso zuen Lizartzako Arau Subsidiarioen Berrikuspen Dokumentua jendaurrean egon den epealdian 15 alegazio aurkeztu dira. Ondoren, sarrera dataren arabera ordenaturik, iradokizun bakoitzari buruzko balorazioa aurkezten dugu:

2006ko martxo- apirila bitartean berriz ere dokumentua erakustaldi publikoan jarri zen: A-1-2 unitate asistematikoa, A-2 zerrategi aldea, A-4-6 barrenetxe exekuzio unitatea eta A-7 zonaldeetan egindako aldaketak funtsezkoak zirela eta, alegazio epe berri bat egon zen. Epe horretan, 5 alegazio berri aurkeztu dira.

- 1.- Manuel Etxaide Alustiza, Construcciones Manuel Etxaide S.L.ren izenean (2005-04-07)**

Idatziaren edukia:

Arau berrikuspenerako lehen onarpen dokumentuak, partzialki onartzen zuen Manuel Etxaide Alustizak eginiko alegazioa.

Ordezkapen proposamen bat egiten zen Bentatxuri eraikinarentzat, kaleko espaloia zabaldu eta eraikina atzeratuz, sestra gainetik 280 m² eraikigarrietatik 370 m² eraikigarriera pasatzeko aukera ematen zen, bi etxebizitza diren tokian 4 eraikitzeko.

Eskatutako eraikigarritasuna funtsean onartzen bazen ere, lehen onarpen dokumentuak, " L " erako eraikin bat proposatzen zuen, iradokizunetan proposatutako aurreproiektua baztertuz.

Alegazio honen bidez, aurrerapen dokumentuak jasotako ordezkapen proposamena zertxobait aldatu nahi du, izan ere, bere ustetan lehen onarpeneko proposamenak, altuera handiegia hartzen bait du Elbarrena kalearekiko eta erdisotoaren erabilera baldintzak desegokiak bihurtzen ditu. Beste aurreproiektu bat aurkezten du, Lehen onarpen dokumentuan jasotako proposamenaren baldintza orokorrak aintzat hartzen dituen.

Erdisotoko azalera 20 m txikitzea proposatzen dute eta aldiz sestra gaineko azalera 30 m-tan handitzea (krokisak aurkezten dira).

"L" erako eraikina proposatzen du, baina lehen onarpen dokumentuan ez bezala Elbarrena eta Elizbide kaletako gurutz bidean erdigunea duena. Bertan kokatzen dira eraikineko ataria, igogailua eta sarrera nagusia. Honek, Elbarrena kalearekiko altuera txikitzea ekarriko luke.

Balorazioa:

Manuel Etxaidek Lehen onarpen dokumenturako eginiko proposamenak, neurri batean espazio publikoaren hobekuntza eragiten zuen, Elbarrena kaleko

eta Elizako bideko espaloiak zabaltzeko aukera ematen bait zuen, baina aldi berean kalte nabarmena ere eragiten zuen, izan ere Etxe Maiterekiko uzten duen tartea (puntu batzutan 3m-tik beherakoa) eskasegia zelako eta gainera Elbarrena kaletik elizarantz dagoen ikuspegia erabat estaltzen zuelako.

Lehen onarpen dokumentuak,ordezkapenaren probetxamendu gehikuntza onartzen bazuen ere, Etxe maiterekiko distantziak nabarmen handitzen zituen, era honetara elizarekiko ikuspegia mantentzen zelarik.

Alegazioan jasotako proposamena egokia iruditzen zaigu, guztira egiten den probetxamendu gehikuntza, herriak lortzen duen lagapenarekiko ez dela orekatua iruditzen zaigun arren.

A.1.2 Exekuzio unitateko Ordezkapeneko baldintzetan benta Txuri eraikinarentzat ondorengo ordezkapen baldintzak jasotzea proposatzen dugu:

- . 4.6 “ kalifikazio xehekatua” planuan jasotzen diren lerrokaduran mantendu beharko ditu.
- . Profila: Erdi sotoa, beheko solairua eta bi solairu altu.
- . Teilatu hegalerainoko gehienezko altuera Elbarrena kalean neurtuta: 9,00 m
- . Gehienezko azalera eraikia goiko solairuetan: 400 m²
- . gehienezko azalera eraikia erdi sotoan: 160 m².

2.- Roke Rezabal- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondare Historikoaren Zerbitzuaren izenean (2005-04-19)

Idatziaren edukia:

Lizartzako hiri antolamenduko arauen berrikuspenaren hasierako onarpena dela eta, Ondare historiko artistikoa jasotzen duen Katalogoari buruzko zenbait ohar, proposamen eta informazio osagarria ematen da.

Esaterako, Iribarren, Bengoetxe, Asura, Asura Goiena, Zuloaga, Iraola-bekoa, Agirrebarrena, Apaiztegizar, Arrate, Iruntzi eta basaitzgoiena baserriei buruzko informazio osagarria ematen da.

Etxeaundi baserriak fitxarik ez duela esaten da.

Plano batetako zenbaki batetan akatsa dagoela esaten da eta beharbada, balore etnografikoa duten beste ondasunik egon litekela aipatzen du.

Balorazioa:

Emandako informazio osagarria, dagokion fitxetan jaso da eta aipatzen den planoko akatsa zuzendu da.

Etxeaundia baserriko fitxa, 25. zenbakiduna da. Baliteke igorritako aleak fitxa hori faltan izatea.

Baliteke Herrian bestelako ondare etnografikoa egotea. Gure lanak, ondare arkitektonikoa izan du oinarri, eta beraz eraikinen azterketan finkatu da batez ere.

Katalogoa, dokumentu bizia izan behar duela uste dugu, bestelako ondareari buruzko informazioa eta jasota dauden eraikinei buruzko informazio osagarria denboran zehar jasoko duena. Era honetara, hurrengo berrikuspenean Katalogoa osatuagoa izango da.

Katalogoaren txostenean jasotzen den moduan, udalak, baserrietan egiten diren eraberritzeak aprobetxatuz, hauen egitura, historia eta egoerari buruz ahal den informazio gehiena bildu eta jaso beharko luke.

3.- Gipuzkoako Baso Elkarte (2005-04-28)

Alegazioaren edukia:

Hasteko, Lurzoru hiritar ezineko araudia eta erabilera bi arkitektoek soilik nolatan egin dezaketen galdetzen du, izan ere bere ustetan ez daude gaituak honetarako.

Bigarrenik, zuhaitz landaketak arautzeko Udalaren eskuduntza auzitan jartzen da, horretarako Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salako Lehen Sekzioak 2004ko azaroaren 23an emandako Epaia aipatzen da.

Hirugarrenik, Higakortasunari buruz 119 artikuluan esaten denarekiko ezadostasuna azaltzen dute ,eta 120 artikuluan egiten den lurraren sailkapena ez datorrela bat baso eta Nekazaritza arloko Planarekin esaten dute.Interes naturalistiko berezia duten lursailak sailkatzeko PORN (Plan de Ordenación de Recursos naturales) bat egin behar dela dio edo bestela Plan berezi bat idatzi beharko dela dio hauek babes bereziko lursail gisa sailkatzeko.Kasu honetan ez dela horrelakorik egin dio eta beraz Arau subsidiarioek ezin dutela babes bereziko eremurik sailkatu ondorioztatzen du.

Laugarrenez, arau berrikuspeneko araudi orokorreko 122. artikulua bertako hostozabalak ez diren zuhaitzen landaketa ez dela onartuko esaten du, Nekazaritza eta abeltzaintzarako eremuan eta hau ez datorrela bat baso eta Nekazaritza arloko Planarekin diote.

Bestetik, ondorengo artikuluetan ezarritakoarekin ez daudela ados esaten dute:

141.artikuluak partzela minimoa 3 Ha-tan ezartzen du,partzela hau gehiegizkoa dela diote.

142.artikuluak ezartzen dituen itxitura baldintzak osatzeko proposamena egiten dute.

143. artikuluak landaketak egiteko udal baimena beharko dela ezartzen du. Udalak eskumenik ez duela esaten da.

144. artikuluak basoa ateratzeko abal bat jartzeko beharra ezartzen du. Erregulazio hau basoa ateratzeko soilik ez lukeela izan behar eta errepide publikoen erabilerarako orokorra izan beharko lukeela uste dute.

Balorazioa:

.- Arau berrikuspena burutzeko eta bereziki lurzoru hiritar ezineko araudia egiterakoan Ingeniari agronomo baten aholku eta laguntza jaso da. Sailkapena egiterakoan lurralde antolamendurako Artezpideak jarraitu dira.

.- Zuhaitz landakentzen eskuduntzari buruz, alegazio egileek, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salako Lehen Sekzioak 2004ko azaroaren 23an emandako Epaia, 1/2002 zenbakiko Autoetan, ematen dute alegatzaileek, beraz, eta epai hau beste alegazio batzuetan aipatzen denez, Lizartzako udalean duen eragina, eta Epaitegi berdinak Lizartzari buruz gai berdinean esandakoa aztertuko dugu.

Epai horretan Gordexolako Udalaren Dekretu baten aurka emandako errekurtsua erabakitzen da. Dekretu horren bidez, Gordexolako Jabetza Landatarreko hainbat lursailetan insinjis pinua landatzeko baimena ukatzen zen.

Aipatutako epaiak jarritako errekurtsua onartzen du eta inpugnatutako Dekretua ezeztatzen du; halaber, Udalaren Arau Subsidiarioetan lurzoru urbanizaezinaren kategoria ezberdinetan landaketak eta baso-berritzeak arautzen dituen Araudia ezezten du; eta, hain zuzen, 171. art. ezezten du eta errekurtsio-egileak eskatutako landaketak egiteko duen eskubidea aldarrikatzen du.

Errekurtso-egileek emandako epaiak, dagokigun gaian, funtsean azaltzen du Udalek ez dutela eskumenik baso-antolamendu eta ustiapenean, Lege sektorialetan arautzen direlako, eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren kasuan, Foru Aldundiaren esku daudela.

Azpimarratu behar den lehenengo gauza, basogintzako erabileraren mugapenen inguruan Udal demandatuak erabiltzen duen motibazioa da; arrazoi horiek Arauetan, bere memorian eta aurreko azterketetan bilduta daude eta, beste erabileren gaintik, lurraren nekazaritza eta abelazkuntzarako ahalmena zaintzea dute helburu.

Zentzu horretan, epaiak dioenez, Arau Subsidiarioen tramitazioan funtsezko elementu batzuk egoteak, jarritako errekurtoa oniriztera eramaten du, arrazoi honegatik: Arau Subsidiarioen testu bateginaren 171. artikulua, nekazaritza babesteko lurzoru gisa kalifikatutako guneeetan baso-landaketak eta ustiapenak debekatzen dituen, erabat baliogabea da, behin betiko onespena eusten duten baldintza eta oinarri guztiak urratzen dituelako; Azken finean, Udalak ez du eskumenik arlo horretan, baso-antolamendua eta ustiapenen eskumena Foru Diputazioarena baita.

Epai legezko agindu batzuetan oinarritzen da eskumen hori ezartzeko. Lehenik eta behin, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 10. artikulua, bere 8. eta 31. ataletan, argi eta garbi bereizten ditu, alde batetik, mendiak eta baso-ustiapenak eta, bestetik, hirigintza; ondorioz, errealitatearen aspektu ezberdinak dira, zalantzarik gabe. Bigarrenik, lurzoruaren erregimena eta balorazioak arautzen dituen 6/1998 Legea, apirilaren 13koa, eta lurzoruaren erregimenaren eta hiri-antolamenduaren arloko premiazko neurriei buruzko 5/1998 Legea aztertu ezker, ondorioztatzen da plangintzak lurzoruaren modalitate ezberdinak kalifika ditzakeela, baina ez duela horri buruz erabakitzen, eta dagokion sektoreko legediaren edukiri lotuta egon beharko du, plangintzarako tresnak gaintzen dituelako; horiek, diogun bezala, lurzoru mugatzen dute, baina baso-antolamendua eta ustiapena arlo horretako Lege sektorialen helburu dira.

Arrazoibide horrekin bat, epaiak honakoa adierazten du: “mendiak eta babestutako natura-inguruneen administrazioa arautzen dituen ekainaren 2ko 3/1994 Foru Arauak, zioen agerpenean ezartzen du, Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko harremanak arautzen dituen 27/1983 Legearen 7. artikuluari jarraiki, arlo honetan (mendiak, ustiapenak, baso-zerbitzuak, abelbideak eta larreak, Autonomia Estatutuaren 10.8 artikulua terminoetan; basoen zaintza eta nekazaritza eta baso-lurzoruen zaintza eta hobekuntza) Lurralde Historikoko Sailek dutela eskumen eskusiboa; ondorioz, arlo hau ez da hirigintza -berarekin zerikusirik izan arren-, eta horregatik ez dago udalaren hirigintza- eskumenen menpe. Foru Araua mendiak eta baso-guneak ditu helburu, kasu honetan bezala, eta bere hirugarren tituluan antolakuntza-planak, baso-ustiapena e.a. aztertzen ditu. Azken finean, arlo osoa, hemen aztertzen duguna barne, foru aldundien eskumena da, ez udalena, 5. artikuluan, hirugarren tituluan eta 104. artikuluan (beste askotan bezala) ezarritakoaren ondorioz; kontutan izan behar da azken artikulua horrek zehazten dituela baso- eta nekazal ustiapenen, etxebizitzaren e.a. arteko distantziak; laburki esanda, Arau Subsidiarioetan inpugnatutako aginduen bidez arautu nahi ziren egoeren antzekoak”.

Epaitegiak emandako arrazoibideak kontutan hartu dira Lizartzako Udalak jarraitu dituen eta jurisdikzio-zuzenbideetan bukatu diren espediente ezberdinetan; emandako epai guztiak udal -administrazioaren aldekoak izan dira.

Prozesu horietan arazo batzuk eztabaidatu dira; hala nola, lurzoru urbanizaezinean arbolak landatzeari eta mozteari dagokionez udalak duen eskumena. Zentzu horretan, errekurtsio-egileek argudiatzen zuten, Konstituzioa, Euskadiko Autonomia Estatutua eta Lurralde Historikoen Legea oinarritzat hartuz egindako eskumenen banaketari jarraiki, Foru Erakundeek dute eskumen eskusiboa mendien eta baso-ustiapen eta zerbitzuen arloan.

Hain zuzen ere, “Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko harremanak” arautzen dituen

27/1983 Legearen 7 a) 9. artikuluz ari ziren, honako hau ezartzen duelarik: "Lurralde Historikoetako Foru Sailek eskumen eskusiboa dute ondorengo arlo hauetan, eta lurralde bakoitzean indarrean dagoen araubide juridiko pribatiboari jarraiki erabiliko dute, honako arlo hauetan: ...9. Mendiak, ustiapenak, baso-zerbitzuak, abelbideak eta larreak, Autonomia Estatutuaren 10.8 artikulua terminoetan; basoen zaintza eta basoetako nekazal lurzoruen baso-zaintza eta hobekuntza". Halaber, eskumen horren erabileran, uztailearen 8ko 6/1994 Gipuzkoako Foru Araua, Mendiei buruzkoa, eman zen, eta hori ere aipatu dute.

Mendiei buruzko Foru Arau horretan oinarrituta, bai errekurtsio-egileek, bai Foru Aldundiak berak, lurzoru urbanizaezinean edozein jarduketa motan eskumen eskusiboa eurentzat hartzen dute.

Hala ere, hau bezalako gaietan, hau da, lurzoru urbanizaezinean erabilerak ea jarduketak arautzeko udalaren eskumena eta baso-baliabideak ustiatzeko hirigintza-baimenak lortzeko beharra aztertzen zituen gaietan emandako epaietan, non eta Foru araudia kontutan hartu baita -Mendiei buruzko 6/94 Araua- eta Lurraldea Antolatzeke Jarraibideak (2000ko otsailaren 10eko EAEANren bigarren Sekzioaren 151/2000 Epaian, 3361/96 AAE, Administrazioarekiko Auzien Donostiako 2. Epaitegiak 2000ko azaroaren 27an emandako epaian, 125/00 AAE, hain zuzen), adierazi zuten lurzoru urbanizaezinean egindako jarduketan arautzeko eta kontrolatzeko eskumen hori ez dela eskusiboa Administrazio zehatz batentzat; alderantziz, partekatutako eskumenak daudelakoan dago.

Salak, pareko kasuetan jarraitutako lerroari lotuta (598/96 Epaia, 2. sekzioko 1573/93 AAetik zetorrena, eta 1. sekzioko 3369/94 AAEn 1000/98 Epaia, goian aipatu dena, besteak beste), honela ebazten du:

"Sala ez dator bat demandatzailearen tesiarekin, bere ustez, partekatutako konkurrentziaren kasu paradigmaticoa delako. Helburu juridiko ezberdinak dituzten eta espazio fisiko berberean diharduten Administrazio batzuen eskumenak aldi berean egotea Konstituzioan definitutako lurralde-

eskeman maiz agertzen den fenomeno da; eskumenak aldi berean agertze horiek oso bereziki gertatzen dira lurraldearen antolamenduari dagokionean, elementu fisiko zehatz horretan, lurraldea eragiten duten ingurumenaren arloko politikak eta zereginak eta sektorialak batera biltzen baitira”.

Ebazpen horrek honela jarraitzen du:

"Konstituzio Auzitegiak fenomeno horri buruzko iritzia eman du eta, oro har, ondokoa adierazi du: Eskumenen titulartasuna politika batean oinarrituta ezartzen den kasuetan, ez antolamenduaren edo jarduketa publikoaren sektore konkretuetan oinarrituta, eskumen hori ezin da ulertu modu batean, zeinen bidez, arauak (edo egintza zehatzak) bilatzen duen helburuaren inkardinazio hutsak, politika horretan, beste erakunde batzuei dagokien eskumena alde batera uztean baimentzen baitu, arau eta egintza berbera beste ikuspuntu batzuetatik ikusten baldin badira (149/91 KAE). Titulu-aniztasun horrek aparteko ezaugarriak ditu, aldiberekotasun hori, balio naturalengatik babes bereziaren helburu diren lekuetan gertatzen denean. Aurrez aurre dugun kasua Euskal Autonomia Erkidegoak, Foru Aldundiak eta Udalak dauzkaten eta espazio fisiko berbera eragiten duten eskumenen aldiberekotasunaren adibide argia da. Konkurrentzia-egoeratik ondorioztatzen da eskumen batek ezin diela kompetentzia kendu gainerakoei.

Azken finean, aipatutako ebazpen judizialek Udalak hartutako erabakiak zuzenbideari lotuta daudela deklaritzen dute eta, bereziki, honako hau diote:

1.)- Guztiz onargarria da Udal Administrazioak kontrolatzea lurzoru urbanizaezinean burutzen diren jarduketa guztiak, batez ere natura-baliabideen erabilpenak eragina badu edo izan badezake Udalak Ingurumenaren arloan duen eskuduntzan, eta Udalak interes argia baldin badu lurzoru-mota horretan egiten den erabilpenean, beste zirkunstantzien artean, lurraren higadura, espezieen ugaltzea edo berauen akabatzea kontrolatzeko.

2.)- Azaroaren 24ko 82/98 Foru Dekretuaren Xedapen Indargabetzaileak ezin du eraginik izan legeek udal-erakundeei ematen dien eskumenean; eta egindako landaketa lurzoruaren erabilpen espezifikoa da eta lotura zuzena du ingurumenaren zaintzarekin. Arau Subsidiarioen ondoren emandako arau batek, era espezifikoa ezartzen du Euskal Administrazio publikoek natura-ondarearen aniztasuna zaintzearen alde bultzatu behar duten ekintza, erkidegoko espezieak mantentzeko eta ekologia oreka zaintzeko (16/94 Legea, ekainaren 30ekoa); horrek zilegitzen du bertakoa ez den arbola-masa bat landatzeko egintza baimentzeko beharraren eragina, Lizartzako Arau Subsidiarioek aurreikusten duten moduan.

3.)- Kasu honetan ez gaude kontrajarritako bi baimenen aurrean; aitzitik, erakunde bakoitzak dagozkion eskumenak bereganatzen ditu eta ez dira eskusiboak eta baztertzailleak elkarrekiko, partekatuak baizik, eta gainjartzen dira, eta bien arteko bateragarritasunez aritu behar da.

- Araudiaren 118 eta 119 artikuluen edukia ez da bateraezina. Zuhaitz landaketa guztiz beharrezkoa da higakortasuna saihesteko, baina ez edozein zuhaitz mota, bereziki sustrai sakoneko zuhaitzak dira beharrezkoak. Sustrai luze eta azalekoak dituzten zuhaitzak, epe luzera lurzoruaren higakortasuna areagotzen dute.

- 120 artikuluan jasotzen den lurzoruaren sailkapena egiterakoan Lurralde Antolamenduaren Artezpideak (DOT.ak) ezarritako sailkapen proposamena jarraitu da eta Arloko planak proposatutako sailkapena kontutan hartu da. Egin den sailkapena Arloko planak egiten duen bezain zatikatu eta xehekatua ez den arren, Arloko planak egiten duen sailkapena orokorrean aintzat hartzen du. Hala ere, kontutan izan behar da baita ere, arloko planak lehen onarpena duela soilik eta momentuz ez dagoela behin betikoz onartuta.

LAAek udal planeamenduak lurzoru hiritar ezinean zazpi kategoria ezarri ditzatela proposatzen dute: Babes Berezia, Ingurumenaren hobekuntza, Basoa, nekazaritza eta abaltzaintzako zona eta landazabala, Mendiko larreak, Erabilera-bokazio definitu gabea eta Lurrazaleko uren babesa. Gainera,

LAAetan Babes Berezia eta Lurrazaleko uren babesa kategorientzat proposaturiko erregulazioa lotzailea da udal planeamenduarentzat.

- 141. artikuluan ezarritako Partzela minimoari dagokionez, Lizartzako egungo ustiapenak aztertu ondoren eta lurraren erabilera gaitasuna aztertu ondoren, ustiapen bat bideragarria izateko gutxienez 3 Ha-ko azalera behar dela ondorioztatu dugu, beraz 3 Ha ko gutxienezko partzela egokia dela uste dugu.
- 142. artikuluan ezarritako Itxitura baldintzei buruzko egindako zenbait iradokizun sartzea aztertuko da.
- 144. artikuluan, basoa ateratzeko baldintzak, errepide publikoen erabilera baldintzetara egokitzeko eskaria onartzen da.
- 122 eta 143. artikuluei buruzko alegazio aurreko eskuduntzari buruzko atalean aztertu da.

Proposamena:

Azaldutakoaren ondorioz, bidezkoa da aurkeztutako alegazioa kontuan ez hartzea, alegatzaileek emandako kasua eta Lizartzakoa ezin baitira berdindu. Lizartzan, Udalak ez dihardu mendien, ustiapenen eta baso-zerbitzuen arloan, Udalak dihardu hirigintza eta ingurumenaren arloan duen eskumen-ahalmena duelako, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluan ezarritakoa betez.

Onartzen dira 142 eta 144. artikuluei egindako proposamenak.

4.- Milagros Aizpurua Alkorta (2004-04-28)

Alegazioaren edukia:

Bere jabetzan Arauek izango duten eragina aztertzeko tekniko adituen iritzia eskatu duela baina denbora laburregia dela eta alegazioak aurkezteko emandako epea luzatzeko eskatzen du.

Balorazioa:

Udalak, alegazioak aurkezteko epea hilabetez luzatzeko erabakia hartu zuen.

5.- Mariano Urbizu Zabala(2005-04-29)

Idatziaren edukia:

Lehen onarpen dokumentuan, A-2 zonaldean Iribarren baserriaren inguruan lagatzen den eremu pribatuarekin ez dago konforme, izan ere, eraikinak duen izaeragatik inguruan eremu pribatu gehiago behar duela uste du.

Eskatzen dena azaltzeko planu bat eransten da.

Etxe inguruan gutxienez 5 m-ko azalera librea uztea eskatzen du.eta iparraldean, garajera sartu ahal izateko, gutxienez 7 m.

Balorazioa:

Egindako alegazioa onartzen da. A-2 zonaldearen zermugapena aldatuko da eta iribarren baserriaren inguruan eremu pribatu handiagoa utziko da. (Planua eransten da).

6.- Javier Malcorra Arsuaga, Agua del Insalus S.A-ren izenean (2005-05-03)

Idatziaren edukia:

Insalus enpresak burutzen duen jarduera dela eta, gai kutsakorretatik bere iturrien babesak bermatzea ezin bestekotzat jotzen du.

Insalus-ko ura, 1988 urteko martxotik erabilgarritasun publikoko izendapena du. 1968ko ekainaren 15eko kontzesio bidez, AGUA DE INSALUS S.A ur honen ustiapenaren titulartasuna dauka.

Aurrerapen dokumentuak uren kutsakortasun arriskua duten lurrak definitzen eta babesten dituen arren, babes hau eskasa eta orokorregia dela usten dute.

2004 urtean burututako azterlan hidrogeologikoaren arabera(2. dokumentu gisa eranstena dena eta "Informe hidrogeológico del manantial de Agua de Insalus para la revisión del planeamiento urbano de Lizartza" izendapena duena), Iturburuen inguruko babes eremu eraginkorrenak jasotzen dira eta erabilera baldintza zorrotzenak jasotzen dira.

Azterlanean aztertutako zonaldeak, 135 Ha-ko hedadura dauka Insalus-ko uren babes eremuaren barruan aurkitzen da. Aipatutako azterlanean erabat debekatu beharreko erabilerak eta jarduerak jasotzen dira. Hauen barruan, nekazaritza ustiapenak, hirigintza nahiz jarduera industrialak aurkitzen dira, 7.1 taulan jasotzen direnak. Hala nola, ongarri, herbizida eta pestiziden erabilera, purinen metaketa, animalien hondakinen zabalkuntza, abeltzaintza intentsibo eta extensiboa, ganatuaren elikadurarako gai fermentagarriak, abereen babesereako edanlekuak, siloak, gainazaleko uretarako hiri hondakinetako isuriak, hobi septikoak, industri jarduerak, industria erako isuriak, hondakin solidoen isuriak, hidrokarburuen tegiak eta gai radiaktiboaren tegiak.

Aipatutako zonaldea, ingurumenerako babeserako interes bereziko eta natur baliabideen babeserako gune gisa sailkatzeko eskatzen da. Lizartzako Arauek azterlanak jasotzen duen eremua jaso beharko luke, aipatutako gunea babes bereziko eremu gisa sailkatuz aipatutako baldintza eta jarduerak debekatuz.

Balorazioa:

1973ko uztailak 21-eko Mehategi 22 Legea eta Mehategiko Arautegi orokorra onartzen duen 1978ko abuztuak 25eko 2857 Dekretuak, Ur mineraleen ustiapen titulartasuna dutenen eskubideak zehazten ditu eta babes eremuan eman daitezken jardueren erregulazioa egiten du.

Mehategien legearen 28. artikulua ezarritakoaren arabera, ur Mineralen ustiapenaren eta probetxamenduaren titulartasuna dutenen Erabilgarritasun eta ustiapen eksklusibitatea ezartzen du, era berean, hauen babes eremuan garatu edo sustatu daitezken erabilera kaltegarriak ekiditeko eskubidea ematen die titularrei. Babes eremu honetan garatu beharreko jarduerak, aurrez, Eskualdeko Industri Ministeritzaren baimena behar dute, eskuratu beharreko beste baimenez gain. Burutu beharreko jarduerak ustiapenaren titulartasuna dutenen gainean eraginik balute, hauek, indenminazio eskubidea izango lukete.

Mehategiko Arautegi orokorra onartzen duen 1978ko abuztuak 25eko 2857 Dekretuaren(Lege orokorraren garapena burutu zuena), 43. artikulua ezarritakoaren arabera, Urak ustiatzeko baimen edo Kontsezioak, hauen erabilera eksklusiboa ezartzen du eta titularrei hauen erabilerari eta iturrien kopuru eta kalitatearen babeserako dagozian baldintzak ezartzeko eskubidea osoa ematen die, kontsezioaren iraungintasunean. Honetarako, Titularra, Babes eremuan garatu daitezken jarduera kaltegarriak ekiditeko eskubidea izango dute.

Babes eremuan burutu nahi den edozein indusketa edo lurrazpiko mugimenduak aurrez, Industria eta energia Ministeritzaren baimena izan beharko luke, jaso beharreko beste baimenez gain.

Industria eta energia Ministeritzak, Babes eremuan garatu nahi den eta Uraren probetxamendu normalean eragina izan dezaken edozein jarduerari baimena eman aurretik, ustiapenaren titularrari audientzia emango dio, expedientea ebatsi aurretik.

Babes eremuan garatu ahal izateko jardueren baimen administratiboak hirugarren bati sortu diezaiokeen kalteak kontutan hartu gabe emango dira eta beraz, uraren ustiapenean eragina izan dezakeen jarduerak sortutako kalteen ardura berea izango da, bere kasuan titularrari sortutako kalteei dagokien kalteordainak bere gain hartu beharko dituelarik.

Balorazio eta Lurzoru Erregimenari dagokion 1998ko apirilak 13ko 6 Legeak ezarritakoaren arabera, Nolabaiteko izaera berezia duten edo erabilera publikoko izaerari dagokion babesak izan behar duten lurrak, lurzoru hiritarrezineko sailkapena izango dute. Hala ere Legeak ez du inongo kasutan ezartzen planeamendu eskumena duten administrazio publikoek, beren planeamenduan Iturburuei dagozkien babes eremua sartzera behartuta daudenik ez eta gertueneko zonaldeari dagokion aipamenik edo hauei dagokien erabilera mugapena ezarri behar Denik ere.

Edozein kasutan, Agua de Insalus-ek Babes eremu gisa mugatutako eremua, Lehen onarpen Dokumentuan Lurzoru Hiritarrezin gisa sailkatuta dago eta zehatzago lurazpiko uren babeserako eremuari dagokion eremuan. Eremu hauetan, onartutako erabilerak oso mugatuta daude. Hasteko, lurzoru hiritarrezina denez, Estudio hidrogeologikoaren 7.1 atalean aipatutako erabilera Industrial eta hiritarrak jadanik debekatuta daude. Nekazaritza eta Abeltzaintza jardueri dagokionean, Aurrerapen Dokumentuak jasotzen duenaren arabera, hauek garatzerakoan, lurazpiko urak ez kutsatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartzerak behartzen ditu, horretarako dagokion azterlana aurkeztu beharko delarik, Udal baimen eskariarekin batera.

Hala ere, Lurazpiko uren urrakortasuna eta A-5 "insalus"-ari dagokion fitxan, Agua del Insalus-ek duen kontsezioaren berri emango da, dagokion baimena eskuratu behar dela jakineraziz.

7.- Jose Julian Zinkunegi Agirre- Miguel José Etxeberria Luloaga - (2005-05-03)

Alegazioa:

A-4-5 unitatea osatzen duten lursailaren bi jabe bakarrak dira eta ez daude ados Arauetan jaso den proposamenarekin. Beraien nahia, lurrak oraingo egoeran mantentzea dela diote. Zonaldea orain dagoen egoeran, hau da lurzoru hiritarrezina sailkapenarekin mantentzea nahi dute.

Udalarekin gaiaz eztabaidatzeko biltzeko prest daudela diote.

Balorazioa:

A-4-5 exekuzio unitatean egindako proposamenak, herrigunearen bukaera eremu bat da eta Gurutz bide kalearen amaiera eta Sagrario Ermitarekiko lotura sendotzen ditu. Hala ere, jardute sistema Konpentsazioa dela kontutan hartuta, unitatearen garapena lurjabeen eskuetan egongo da. Jabeek egun erakutsi duten ezadostasuna ikusita ere, proposamena mantendu behar dela iruditzen zaigu, jabeek iritziz alda daitezkelako eta gure ustetan bertarako proposamen egokia delako.

Talde teknikoa prest dago nahi duen edonorekin biltzeko.

8.- Ines Olaetxea, Josefina Olaetxea, Milagros Aizpurua, Mariano Urbizu, Juan Karmelo Goikoetxea, Gaspar Barriola eta Felipe Arreseigor, A-2 zonaldeko jabeak - (2005-05-03)

Alegazioa

A-2 zonaldeari buruz prestatzen ari diren alegazioa egiteko epearen luzapena eskatzen dute.

Balorazioa:

Udalak, alegazioak aurkezteko epea hilabetez luzatzeko erabakia hartu zuen.

9.-Hainbat herritarrek sinatutako alegazioa. (2005-05-03)

Alegazioaren edukia:

Alegazio honen bidez, hainbat herritar zuhaitz landaketekin izandako gatazkak aipatzen ditu, Gipuzkoako Foru Aldundiak lizentziak eman eta udalak ukatu egiten zituelako. Era berean Udalak ez dituela berdin tratatu Lizartzan pinuak landatu dituzten pertsonak eta, ondorioz, herritar batzuk baztertu dituela, esaten dute, inseguritate juridikoa sortuz.

Bestalde Zuhaitz landaketako eskuduntza Gipuzkoako Foru Aldundiarena dela diote, Euskal Herriko Estatutu eta Lurren Historikoko legearen arabera, eta Euskal Herriko Auzitegi Gorenako 2004ko azaroaren 26ko epaia ekartzen dute hori baieztatzeko.

Alegazio egileek, Arauetik, zuhaitzak non landatu behar diren kentzea eskatzen dute, eta horrekin batera udalaren landaketa lizentzia beharrik ez dutela adierazten dute, Foru Aldundiaren eskuetan utzi behar delarik

Balorazioa:

Lehenik eta salatutako tratu diskriminatzaileari buruz, esan beharra dago, horrek ez duela zer ikusirik Arau Errebisioaren prozedurarekin. Ala ere, eta baieztapen horren errealitatea baloratu gabe, aipatu behar dugu, eskubidean berdintasun-tratua, legezotasun-egoeretan aldarrikatzen dela; ondorioz, ezin da planteatu, pertsona zehatz batzuei zuzenbidearen arabekoak ez diren ekintza zehatz batzuk egiteko baimena eman bazaie, beste batzuei legez kanpoko egintzak egiteko baimena eman behar zaienik.

Zuhaitz landaketen eskuduntzari buruz, alegazio egileek, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salako Lehen Sekzioak 2004ko azaroaren 23an emandako Epaia, 1/2002 zenbakiko Autoetan, ematen dute alegatzaileek, beraz, eta epai hau beste

alegazio batzuetan aipatzen denez, Lizartzako udalean duen eragina, eta Epaitegi berdinak Lizartzari buruz gai berdinean esandakoa aztertuko dugu.

Epai horretan Gordexolako Udalaren Dekretu baten aurka emandako errekurtsua erabakitzen da. Dekretu horren bidez, Gordexolako Jabetza Landatarreko hainbat lursailetan insignis pinua landatzeko baimena ukatzen zen.

Aipatutako epaiak jarritako errekurtsua onartzen du eta inpugnatutako Dekretua ezeztatzen du; halaber, Udalaren Arau Subsidiarioetan lurzoru urbanizaezinaren kategoria ezberdinetan landaketak eta baso-berritzeak arautzen dituen Araudia ezezten du; eta, hain zuzen, 171. art. ezezten du eta errekurtsu-egileak eskatutako landaketak egiteko duen eskubidea aldarrikatzen du.

Errekurtsu-egileek emandako epaiak, dagokigun gaian, funtsean azaltzen du Udalek ez dutela eskumenik baso-antolamendu eta ustiapenean, Lege sektorialetan arautzen direlako, eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren kasuan, Foru Aldundiaren esku daudela.

Azpimarratu behar den lehenengo gauza, basogintzako erabileraren mugapenen inguruan Udal demandatuak erabiltzen duen motibazioa da; arrazoi horiek Arauetan, bere memorian eta aurreko azterketetan bilduta daude eta, beste erabileren gainetik, lurraren nekazaritza eta abelazkuntzarako ahalmena zaintzea dute helburu.

Zentzu horretan, epaiak dioenez, Arau Subsidiarioen tramitazioan funtsezko elementu batzuk egoteak, jarritako errekurtsua oniriztera eramaten du, arrazoi honegatik: Arau Subsidiarioen testu bateginaren 171. artikulua, nekazaritza babesteko lurzoru gisa kalifikatutako guneeetan baso-landaketak eta ustiapenak debekatzen dituena, erabat baliogabea da, behin betiko onespena eusten duten baldintza eta oinarri guztiak urratzen dituelako; Azken finean, Udalak ez du eskumenik arlo horretan, baso-antolamendua eta ustiapenen eskumena Foru Diputazioarena baita.

Epaia legezko agindu batzuetan oinarritzen da eskumen hori ezartzeko. Lehenik eta behin, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 10. artikulua, bere 8. eta 31. ataletan, argi eta garbi bereizten ditu, alde batetik, mendiak eta baso-ustiapenak eta, bestetik, hirigintza; ondorioz, errealitatearen aspektu ezberdinak dira, zalantzarik gabe. Bigarrenik, lurzoruaren erregimena eta balorazioak arautzen dituen 6/1998 Legea, apirilaren 13koa, eta lurzoruaren erregimenaren eta hiri-antolamenduaren arloko premiazko neurriei buruzko 5/1998 Legea aztertu ezker, ondorioztatzen da plangintzak lurzoruaren modalitate ezberdinak kalifika ditzakeela, baina ez duela horri buruz erabakitzen, eta dagokion sektoreko legediaren edukari lotuta egon beharko du, plangintzarako tresnak gainditzen dituelako; horiek, diogun bezala, lurzoria mugatzen dute, baina baso-antolamendua eta ustiapena arlo horretako Lege sektorialen helburu dira.

Arrazoibide horrekin bat, epaiak honakoa adierazten du: “mendiak eta babestutako natura-inguruneen administrazioa arautzen dituen ekainaren 2ko 3/1994 Foru Araua, zioen agerpenean ezartzen du, Autonomia Erkidego osorako erakundearen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Erakundearen arteko harremanak arautzen dituen 27/1983 Legearen 7. artikuluari jarraiki, arlo honetan (mendiak, ustiapenak, baso-zerbitzuak, abelbideak eta larreak, Autonomia Estatutuaren 10.8 artikulua terminoetan; basoen zaintza eta nekazaritza eta baso-lurzoruaren zaintza eta hobekuntza) Lurralde Historikoko Sailek dutela eskumen eskusiboa; ondorioz, arlo hau ez da hirigintza -berarekin zerikusirik izan arren-, eta horregatik ez dago udalaren hirigintza-eskumenean menpe. Foru Araua mendiak eta baso-guneak ditu helburu, kasu honetan bezala, eta bere hirugarren tituluan antolakuntza-planak, baso-ustiapena e.a. aztertzen ditu. Azken finean, arlo osoa, hemen aztertzen duguna barne, foru aldundien eskumena da, ez udalena, 5. artikuluan, hirugarren tituluan eta 104. artikuluan (beste askotan bezala) ezarritakoaren ondorioz; kontutan izan behar da azken artikulua horrek zehazten dituela baso- eta nekazal ustiapenen, etxebizitzaren e.a. arteko distantziak; laburki esanda, Arau Subsidiarioetan inpugnatutako aginduen bidez arautu nahi ziren egoeren antzekoak”.

Epaitegiak emandako arrazoibideak kontutan hartu dira Lizartzako Udalak jarraitu dituen eta jurisdikzio-zuzenbideetan bukatu diren espediente ezberdinetan; emandako epai guztiak udal -administrazioaren aldekoak izan dira.

Prozesu horietan arazo batzuk eztabaidatu dira; hala nola, lurzoru urbanizaezinean arbolak landatzeari eta mozteari dagokionez udalak duen eskumena. Zentzu horretan, errekurtsio-egileek argudiatzen zutenez, Konstituzioa, Euskadiko Autonomia Estatutua eta Lurralde Historikoen Legea oinarritzat hartuz egindako eskumenen banaketari jarraiki, Foru Erakundeek dute eskumen eskusiboa mendien eta baso-ustiapen eta zerbitzuen arloan.

Hain zuzen ere, "Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko harremanak" arautzen dituen 27/1983 Legearen 7 a) 9. artikulua ari ziren, honako hau ezartzen duelarik: "Lurralde Historikoetako Foru Sailek eskumen eskusiboa dute ondorengo arlo hauetan, eta lurralde bakoitzean indarrean dagoen araubide juridiko pribatiboari jarraiki erabiliko dute, honako arlo hauetan: ...9. Mendiak, ustiapenak, baso-zerbitzuak, abelbideak eta larreak, Autonomia Estatutuaren 10.8 artikulua terminoetan; basoen zaintza eta basoetako nekazal lurzoruen baso-zaintza eta hobekuntza". Halaber, eskumen horren erabileran, uztailearen 8ko 6/1994 Gipuzkoako Foru Araua, Mendiei buruzkoa, eman zen, eta hori ere aipatu dute.

Mendiei buruzko Foru Arau horretan oinarrituta, bai errekurtsio-egileek, bai Foru Aldundiak berak, lurzoru urbanizaezinean edozein jarduketa motan eskumen eskusiboa eurentzat hartzen dute.

Hala ere, hau bezalako gaietan, hau da, lurzoru urbanizaezinean erabilerak ea jarduketak arautzeko udalaren eskumena eta baso-baliabideak ustiatzeko hirigintza-baimenak lortzeko beharra aztertzen zituen gaietan emandako epaietan, non eta Foru araudia kontutan hartu baita -Mendiei buruzko 6/94 Araua- eta Lurraldea Antolatzeako Jarraibideak (2000ko otsailaren 10eko EAEANren bigarren Sekzioaren 151/2000 Epaian, 3361/96 AAE,

Administrazioarekiko Auzien Donostiako 2. Epaitegiak 2000ko azaroaren 27an emandako epaian, 125/00 AAE, hain zuzen), adierazi zuten lurzoru urbanizaezinean egindako jarduketan arautzeko eta kontrolatzeko eskumen hori ez dela eskusiboa Administrazio zehatz batentzat; alderantziz, partekatutako eskumenak daudelakoan dago.

Salak, pareko kasuetan jarraitutako lerroari lotuta (598/96 Epaia, 2. sekzioko 1573/93 AAetik zetorrena, eta 1. sekzioko 3369/94 AAeren 1000/98 Epaia, goian aipatu dena, besteak beste), honela ebazten du:

“Sala ez dator bat demandatzailearen tesiarekin, bere ustez, partekatutako konkurrentziaren kasu paradigmaticoa delako. Helburu juridiko ezberdinak dituzten eta espazio fisiko berberean diharduten Administrazio batzuen eskumenak aldi berean egotea Konstituzioan definitutako lurralde-eskeman maiz agertzen den fenomeno da; eskumenak aldi berean agertze horiek oso bereziki gertatzen dira lurraldearen antolamenduari dagokionean, elementu fisiko zehatz horretan, lurraldea eragiten duten ingurumenaren arloko politikak eta zereginak eta sektorialak batera biltzen baitira”.

Ebazpen horrek honela jarraitzen du:

"Konstituzio Auzitegiak fenomeno horri buruzko iritzia eman du eta, oro har, ondokoa adierazi du: Eskumenen titulartasuna politika batean oinarrituta ezartzen den kasuetan, ez antolamenduaren edo jarduketa publikoaren sektore konkretuetan oinarrituta, eskumen hori ezin da ulertu modu batean, zeinen bidez, arauak (edo egintza zehatzak) bilatzen duen helburuaren inkardinazio hutsak, politika horretan, beste erakunde batzuei dagokien eskumena alde batera uztean baimentzen baitu, arau eta egintza berbera beste ikuspuntu batzuetatik ikusten baldin badira (149/91 KAE). Titulu-aniztasun horrek aparteko ezaugarriak ditu, aldiberekotasun hori, balio naturalengatik babes bereziaren helburu diren lekuetan gertatzen denean. Aurrez aurre dugun kasua Euskal Autonomia Erkidegoak, Foru Aldundiak eta Udalak dauzkaten eta espazio fisiko berbera eragiten duten eskumenen aldiberekotasunaren adibide

argia da. Konkurrentzia-egoeratik ondorioztatzen da eskumen batek ezin diela kompetentzia kendu gainerakoei.

Azken finean, aipatutako ebazpen judizialek Udalak hartutako erabakiak zuzenbideari lotuta daudela deklaritzen dute eta, bereziki, honako hau diote:

- 1.)- Guztiz onargarria da Udal Administrazioak kontrolatzea lurzoru urbanizaezinean burutzen diren jarduketa guztiak, batez ere natura-baliabideen erabilpenak eragina badu edo izan badezake Udalak Ingurumenaren arloan duen eskuduntzan, eta Udalak interes argia baldin badu lurzoru-mota horretan egiten den erabiltzean, beste zirkunstantzien artean, lurraren higadura, espezieen ugaltzea edo berauen akabatzea kontrolatzeko.
- 2.)- Azaroaren 24ko 82/98 Foru Dekretuaren Xedapen Indargabetzaileak ezin du eraginik izan legeek udal-erakundeei ematen dien eskumenean; eta egindako landaketa lurzoruaren erabilpen espezifikoa da eta lotura zuzena du ingurumenaren zaintzarekin. Arau Subsidiarioen ondoren emandako arau batek, era espezifikoa ezartzen du Euskal Administrazio publikoek natura-ondarearen aniztasuna zaintzearen alde bultzatu behar duten ekintza, erkidegoko espezieak mantentzeko eta ekologia oreka zaintzeko (16/94 Legea, ekainaren 30ekoa); horrek zilegitzen du bertakoa ez den arbola-masa bat landatzeko egintza baimentzeko behar eragina, Lizartzako Arau Subsidiarioek aurreikusten duten moduan.
- 3.)- Kasu honetan ez gaude kontrajarritako bi baimenen aurrean; aitzitik, erakunde bakoitzak dagozkion eskumenak bereganatzen ditu eta ez dira eksklusiboak eta baztertzailerak elkarrekiko, partekatuak baizik, eta gainjartzen dira, eta bien arteko bateragarritasunez aritu behar da.

Proposamena:

Azaldutakoaren ondorioz, bidezkoa da aurkeztutako alegazioa kontuan ez hartzea, alegatzaileek emandako kasua eta Lizartzakoa ezin baitira

berdindu. Lizartzan, Udalak ez dihardu mendien, ustiapenen eta baso-zerbitzuen arloan, Udalak dihardu hirigintza eta ingurumenaren arloan duen eskumen-ahalmena duelako, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluan ezarritakoa betez.

10.- Juan Carmelo Goikoetxea (2005-05-03)

Idatziaren edukia:

Lehenik, Arau berrikuspena herritarren partehartzerik gabe egin dela eta beren interesak defendatzeko aukerarik ez dutela izan esaten du.

Bigarrenik, A-1-1 unitatean egiten den proposamena ez datorrela bat Lizartzako herriaren nekazal izaerarekin eta bertan proposatzen den lorategi publikoak Auztegi baserriaren intimitatea zeharo urratzen duela dio. Eraikin berriak proposatu orde zaudenak eraberritu beharko liratekela esaten du.

Azkenik, A-1-1 zonaldean egiten den proposamen baztertzea eta baserriak dituen lurak bere hortan uztea eskatzen du.

Udalarekin gaiaz eztabaidatzeko biltzeko prest daudela dio.

Balorazioa:

Ez dagokio talde teknikoari honen balorazioa egitea.

Berrikuspen prozesuak, bitan ematen du aukera herritarren iritzia jasotzeko. Jasotako proposamen eta alegazio guztiak arreta handiz aztertu ditu talde tekniko honek eta bere iritzia azaldu du kasu bakoitzean. Azken erabakia edozein kasutan, udal gobernuari dagokio.

A-1-1 zonaldean egiten den proposamenak, herrigunean espazio libre publiko bat, lorategi bat sortzeko aukera ematen du. Proposatzen den eraikina, Elbarrena kalean proposatzen da, egun guztiz hiritar izaera duen kalean. Aldiz,

goikaldean, eliz ingurunean eta auztegi baserri aurrean ere, lorategi publiko bat sortzen da. Gure ustez honek inguruko eraikinekiko eragin positiboa izango du.

Proposatutako Eskuhartze edo jardute sistema konpentsazioa da eta beraz, jabeen esku egongo da zonaldearen garapena gauzatzea.

Talde teknikoa prest dago nahi duen edonorekin biltzeko.

11.- Enba, Euskal Nekazarien batasuna(2005-05-04)

Alegazioaren edukia:

Enbak egindako alegazioan bere afiliatuek iraganean zuhaitz landaketekin izandako gatazkak aipatzen ditu, Gipuzkoako Foru Aldundiak lizentziak eman eta udalak ukatu egiten zituelako. Era berean Udalak ez dituela berdin tratatu Lizartzan pinuak landatu dituzten pertsonak eta, ondorioz, herritar batzuk baztertu dituela, esaten dute.

Bestalde Zuhaitz landaketako eskuduntza Gipuzkoako Foru Aldundiarena dela diote, Euskal Herriko Estatutu eta Lurralde Historikoko legearen arabera, eta Euskal Herriko Auzitegi Gorenako 2004ko azaroaren 26ko epaia ekartzen dute hori baieztatzeko.

Funtsean, arauak onartu aurretik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako oniritzia jasotzea, edo behintzat beraiekin kontsulta egitea arau kontrajarririk ez egote arren.

Balorazioa

Zuhaitz landakentzen eskuduntzari buruz, alegazio egileek, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salako Lehen Sekzioak 2004ko azaroaren 23an emandako Epaia, 1/2002 zenbakiko Autoetan, ematen dute alegatzaileek, beraz, eta epai hau beste

alegazio batzuetan aipatzen denez, Lizartzako udalean duen eragina, eta Epaitegi berdinak Lizartzari buruz gai berdinean esandakoa aztertuko dugu.

Epai horretan Gordexolako Udalaren Dekretu baten aurka emandako errekurtsua erabakitzen da. Dekretu horren bidez, Gordexolako Jabetza Landatarreko hainbat lursailetan insignis pinua landatzeko baimena ukatzen zen.

Aipatutako epaiak jarritako errekurtsua onartzen du eta inpugnatutako Dekretua ezeztatzen du; halaber, Udalaren Arau Subsidiarioetan lurzoru urbanizaezinaren kategoria ezberdinetan landaketak eta baso-berritzeak arautzen dituen Araudia ezezten du; eta, hain zuzen, 171. art. ezezten du eta errekurtsu-egileak eskatutako landaketak egiteko duen eskubidea aldarrikatzen du.

Errekurtsu-egileek emandako epaiak, dagokigun gaian, funtsean azaltzen du Udalek ez dutela eskumenik baso-antolamendu eta ustiapenean, Lege sektorialetan arautzen direlako, eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren kasuan, Foru Aldundiaren esku daudela.

Azpimarratu behar den lehenengo gauza, basogintzako erabileraren mugapenen inguruan Udal demandatuak erabiltzen duen motibazioa da; arrazoi horiek Arauetan, bere memorian eta aurreko azterketetan bilduta daude eta, beste erabileren gainetik, lurraren nekazaritza eta abelazkuntzarako ahalmena zaintzea dute helburu.

Zentzu horretan, epaiak dioenez, Arau Subsidiarioen tramitazioan funtsezko elementu batzuk egoteak, jarritako errekurtsua oniriztera eramaten du, arrazoi honegatik: Arau Subsidiarioen testu bateginaren 171. artikulua, nekazaritza babesteko lurzoru gisa kalifikatutako guneeetan baso-landaketak eta ustiapenak debekatzen dituena, erabat baliogabea da, behin betiko onespena eusten duten baldintza eta oinarri guztiak urratzen dituelako; Azken finean, Udalak ez du eskumenik arlo horretan, baso-antolamendua eta ustiapenen eskumena Foru Diputazioarena baita.

Epaia legezko agindu batzuetan oinarritzen da eskumen hori ezartzeko. Lehenik eta behin, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 10. artikulua, bere 8. eta 31. ataletan, argi eta garbi bereizten ditu, alde batetik, mendiak eta baso-ustiapenak eta, bestetik, hirigintza; ondorioz, errealitatearen aspektu ezberdinak dira, zalantzarik gabe. Bigarrenik, lurzoruaren erregimena eta balorazioak arautzen dituen 6/1998 Legea, apirilaren 13koa, eta lurzoruaren erregimenaren eta hiri-antolamenduaren arloko premiazko neurriei buruzko 5/1998 Legea aztertu ezker, ondorioztatzen da plangintzak lurzoruaren modalitate ezberdinak kalifika ditzakeela, baina ez duela horri buruz erabakitzen, eta dagokion sektoreko legediaren edukari lotuta egon beharko du, plangintzarako tresnak gainditzen dituelako; horiek, diogun bezala, lurzoria mugatzen dute, baina baso-antolamendua eta ustiapena arlo horretako Lege sektorialen helburu dira.

Arrazoibide horrekin bat, epaiak honakoa adierazten du: “mendiak eta babestutako natura-inguruneen administrazioa arautzen dituen ekainaren 2ko 3/1994 Foru Araua, zioen agerpenean ezartzen du, Autonomia Erkidego osorako erakundearen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Erakundearen arteko harremanak arautzen dituen 27/1983 Legearen 7. artikuluari jarraiki, arlo honetan (mendiak, ustiapenak, baso-zerbitzuak, abelbideak eta larreak, Autonomia Estatutuaren 10.8 artikulua terminoetan; basoen zaintza eta nekazaritza eta baso-lurzoruaren zaintza eta hobekuntza) Lurralde Historikoko Sailek dutela eskumen eskusiboa; ondorioz, arlo hau ez da hirigintza -berarekin zerikusirik izan arren-, eta horregatik ez dago udalaren hirigintza- eskumenean menpe. Foru Araua mendiak eta baso-guneak ditu helburu, kasu honetan bezala, eta bere hirugarren tituluan antolakuntza-planak, baso-ustiapena e.a. aztertzen ditu. Azken finean, arlo osoa, hemen aztertzen duguna barne, foru aldundien eskumena da, ez udalena, 5. artikuluan, hirugarren tituluan eta 104. artikuluan (beste askotan bezala) ezarritakoaren ondorioz; kontutan izan behar da azken artikulua horrek zehazten dituela baso- eta nekazal ustiapenen, etxebizitzaren e.a. arteko distantziak; laburki esanda, Arau Subsidiarioetan inpugnatutako aginduen bidez arautu nahi ziren egoeren antzekoak”.

Epaitegiak emandako arrazoibideak kontutan hartu dira Lizartzako Udalak jarraitu dituen eta jurisdikzio-zuzenbideetan bukatu diren espediente ezberdinetan; emandako epai guztiak udal -administrazioaren aldekoak izan dira.

Prozesu horietan arazo batzuk eztabaidatu dira; hala nola, lurzoru urbanizaezinean arbolak landatzeari eta mozteari dagokionez udalak duen eskumena. Zentzu horretan, errekurtsio-egileek argudiatzen zutenez, Konstituzioa, Euskadiko Autonomia Estatutua eta Lurralde Historikoen Legea oinarritzat hartuz egindako eskumenen banaketari jarraiki, Foru Erakundeek dute eskumen eskusiboa mendien eta baso-ustiapen eta zerbitzuen arloan.

Hain zuzen ere, "Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko harremanak" arautzen dituen 27/1983 Legearen 7 a) 9. artikulua ari ziren, honako hau ezartzen duelarik: "Lurralde Historikoetako Foru Sailek eskumen eskusiboa dute ondorengo arlo hauetan, eta lurralde bakoitzean indarrean dagoen araubide juridiko pribatiboari jarraiki erabiliko dute, honako arlo hauetan: ...9. Mendiak, ustiapenak, baso-zerbitzuak, abelbideak eta larreak, Autonomia Estatutuaren 10.8 artikulua terminoetan; basoen zaintza eta basoetako nekazal lurzoruen baso-zaintza eta hobekuntza". Halaber, eskumen horren erabileran, uztailearen 8ko 6/1994 Gipuzkoako Foru Araua, Mendiei buruzkoa, eman zen, eta hori ere aipatu dute.

Mendiei buruzko Foru Arau horretan oinarrituta, bai errekurtsio-egileek, bai Foru Aldundiak berak, lurzoru urbanizaezinean edozein jarduketa motan eskumen eskusiboa eurentzat hartzen dute.

Hala ere, hau bezalako gaietan, hau da, lurzoru urbanizaezinean erabilerak ea jarduketak arautzeko udalaren eskumena eta baso-baliabideak ustiatzeko hirigintza-baimenak lortzeko beharra aztertzen zituen gaietan emandako epaietan, non eta Foru araudia kontutan hartu baita -Mendiei buruzko 6/94 Araua- eta Lurraldea Antolatze Jarrabideak (2000ko otsailaren 10eko EAEANren bigarren Sekzioaren 151/2000 Epaian, 3361/96 AAE,

Administrazioarekiko Auzien Donostiako 2. Epaitegiak 2000ko azaroaren 27an emandako epaian, 125/00 AAE, hain zuzen), adierazi zuten lurzoru urbanizaezinean egindako jarduketan arautzeko eta kontrolatzeko eskumen hori ez dela eskusiboa Administrazio zehatz batentzat; alderantziz, partekatutako eskumenak daudelakoan dago.

Salak, pareko kasuetan jarraitutako lerroari lotuta (598/96 Epaia, 2. sekzioko 1573/93 AAetik zetorrena, eta 1. sekzioko 3369/94 AAEn 1000/98 Epaia, goian aipatu dena, besteak beste), honela ebazten du:

“Sala ez dator bat demandatzailearen tesiarekin, bere ustez, partekatutako konkurrentziaren kasu paradigmaticoa delako. Helburu juridiko ezberdinak dituzten eta espazio fisiko berberean diharduten Administrazio batzuen eskumenak aldi berean egotea Konstituzioan definitutako lurralde-eskeman maiz agertzen den fenomeno da; eskumenak aldi berean agertze horiek oso bereziki gertatzen dira lurraldearen antolamenduari dagokionean, elementu fisiko zehatz horretan, lurraldea eragiten duten ingurumenaren arloko politikak eta zereginak eta sektorialak batera biltzen baitira”.

Ebazpen horrek honela jarraitzen du:

"Konstituzio Auzitegiak fenomeno horri buruzko iritzia eman du eta, oro har, ondokoa adierazi du: Eskumenen titulartasuna politika batean oinarrituta ezartzen den kasuetan, ez antolamenduaren edo jarduketa publikoaren sektore konkretuetan oinarrituta, eskumen hori ezin da ulertu modu batean, zeinen bidez, arauak (edo egintza zehatzak) bilatzen duen helburuaren inkardinazio hutsak, politika horretan, beste erakunde batzuei dagokien eskumena alde batera uztean baimentzen baitu, arau eta egintza berbera beste ikuspuntu batzuetatik ikusten baldin badira (149/91 KAE). Titulu-aniztasun horrek aparteko ezaugarriak ditu, aldiberekotasun hori, balio naturalengatik babes bereziaren helburu diren lekuetan gertatzen denean. Aurrez aurre dugun kasua Euskal Autonomia Erkidegoak, Foru Aldundiak eta Udalak dauzkaten eta espazio fisiko berbera eragiten duten eskumenen aldiberekotasunaren adibide

argia da. Konkurrentzia-egoeratik ondorioztatzen da eskumen batek ezin diela kompetentzia kendu gainerakoei.

Azken finean, aipatutako ebazpen judizialek Udalak hartutako erabakiak zuzenbideari lotuta daudela deklaritzen dute eta, bereziki, honako hau diote:

- 1.)- Guztiz onargarria da Udal Administrazioak kontrolatzea lurzoru urbanizaezinean burutzen diren jarduketa guztiak, batez ere natura-baliabideen erabilpenak eragina badu edo izan badezake Udalak Ingurumenaren arloan duen eskuduntzan, eta Udalak interes argia baldin badu lurzoru-mota horretan egiten den erabiltzean, beste zirkunstantzien artean, lurraren higadura, espezieen ugaltzea edo berauen akabatzea kontrolatzeko.
- 2.)- Azaroaren 24ko 82/98 Foru Dekretuaren Xedapen Indargabetzaileak ezin du eraginik izan legeek udal-erakundeei ematen dien eskumenean; eta egindako landaketa lurzoruaren erabilpen espezifikoa da eta lotura zuzena du ingurumenaren zaintzarekin. Arau Subsidiarioen ondoren emandako arau batek, era espezifikoa ezartzen du Euskal Administrazio publikoek natura-ondarearen aniztasuna zaintzearen alde bultzatu behar duten ekintza, erkidegoko espezieak mantentzeko eta ekologia oreka zaintzeko (16/94 Legea, ekainaren 30ekoa); horrek zilegitzen du bertakoa ez den arbola-masa bat landatzeko egintza baimentzeko beharraren eragina, Lizartzako Arau Subsidiarioek aurreikusten duten moduan.
- 3.)- Kasu honetan ez gaude kontrajarritako bi baimenen aurrean; aitzitik, erakunde bakoitzak dagozkion eskumenak bereganatzen ditu eta ez dira eksklusiboak eta baztertzailerik elkarrekiko, partekatuak baizik, eta gainjartzen dira, eta bien arteko bateragarritasunez aritu behar da.

Proposamena:

Azaldutakoaren ondorioz, bidezkoa da aurkeztutako alegazioa kontuan ez hartzea, alegatzaileek emandako kasua eta Lizartzakoa ezin baitira

berdinu. Lizartzan, Udalak ez dihardu mendien, ustiapenen eta baso-zerbitzuen arloan, Udalak dihardu hirigintza eta ingurumenaren arloan duen eskumen-ahalmena duelako, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluan ezarritakoa betez.

Ala ere kontuan eduki behar da Arauak Gipuzkoako Foru Aldundiak onartzen dituela behin betikoz, beraz, ez dago arau kontrajarririk egoteko arriskurik.

14.- Jose Antonio Mintegi Arrate, Axurdario herri plataformaren alegazioari buruzko txostena (2005/06723)

Idatzi honetan eduki politikoa eta eduki teknikoa duten alegazioak aurkeztu dira. Txosten honetan, soilik eduki teknikoak dituzten alegazioak laburbildu eta erantzun dira.

1.Alegazioa: Lizartzak izan dezakeen biztanle kopuruaren hazkuntzaren inguruko alegazioa: Lizartzan 200 biztanleko hazkuntza izateak duen eragina (bai fisikoa, bai herri izaerari dagokiona) behar bezala aztertu ote den galdetzen da.

1.Txostena: Lizartzak datozen 8-10 urteetan izango dituen etxebizitza beharrak kuantifikatzea ez da lan samurra eta ez dago, inolaz ere, ziurtasun osorik gai honetan. Aurreikuspena estimazioetan oinarritzen da. Estimazio hauek egiteko ondorengoak izan dira kontuan: datu demografikoak (batik bat 15 – 24 urte bitarteko Lizartzar kopurua), objetiboki ezagutzen den etxebizitza beharra (azken etxebizitzak egin direnean erantzun gabe geratu diren eskaera kopurua), familiaren batz besteko tamainaren bilakaera, eskaintzan egon daitekeen zurruntasuna (orain arteko esperientziak erakutsi du ez direla garatu Arauetan aurreikusi izan diren etxebizitza guztiak, soilik portzentaia bat baizik) eta azkenik, inmigrazio fenomenoak. Honela, datozen 8-10 urteetan aurreikusi beharreko gehienezko etxebizitza kopurua 96 etxebizitzetan finkatu da. Beraz, aurreikusi

diren eremu guztiak garatuko balira bakarrik osatuko litzateke aurreikusi den gehieneko hazkuntza, baina seguraski, orain arte gertatu den moduan, ez dira ordenatutako eremu guztiak garatuko datozen 8-10 urteetan.

2.Alegazioa: A2 eremuak gainerako eremuek baino aprobetxamendu handiagoa duela diote, hektareako etxebizitza kopurua altuagoa dela bertan. Era berean, ez dela eremu guztietako lurjabeen arteko berdintasuna bermatuko duen sistemarik aurreikusi ere esaten da.

2.Txostena: Alde batetik, argitu behar da hirigintzaren ondorioz lurjabeek dituzten irabazien arteko desoreka saihestezina dela. Honela, lehenengo "injustizia" lurraren sailkapenarekin, berarekin, gertatzen da, oso desberdinak direlarik lurzoru hiritar ezinean edo lurzoru hiritarrean sailkaturik geratu diren lursailek eragiten dituzten irabaziak. Lurzoru hiritarrean eta lurzoru hiritargarrin sailkaturik geratzeko "zortea" izan duten lurjabeen irabazien arteko banaketa egiteko tresnak, egon, badauden arren, ez dirudi egokia Lizartzakoa moduko Udal batek banaketa honen kudeaketaren zama bere gain hartu beharra; ez baitu honetarako bitarteko nahikorik. Bestalde, lursail baten irabaziak neurtzeko bertan eraiki daitezkeen irabazizko aprobetxamenduei eremuaren garapenari ezartzen zaizkion kargak kendu behar litzaizkioke. Honela, ez du irabazi gehiago izan beharrik hektareako etxebizitza gehien eraiki dezakeen lursailak, baldin eta lursail horrek besteek baino karga handiagoak jasan behar baditu. Honela ba, A.2 eremuak hektareako etxebizitza gehiago baditu ere, kontuan izan behar da hauetarik zati bat babestutako etxebizitzak izango direla. A.2 eremuak 34,52 etxebizitza ditu hektareako (% 46 babestuak) eta A.4.5 eremuak 24,37 etxebizitza baditu ere hektareako eta A.4.4 eremuak 22,74 etxebizitza hektareako guztiak dira libreak. Hau guztiak urbanizazio kargetan dauden diferentziak alde batetara utzita.

3.Alegazioa: A2 eremuko etxebizitza kopurua 38ra murriztea eskatzen dute (hauetarik 20 babestutakoak izatea proposatzen delarik) Gainera,

etxebizitza hauek eraikitzeke etapa plangintza bat egitea ere proposatzen da etxebizitza guztiak ez daitezen bat-batean eraiki.

3.Txostena: Udalak A2 eremuan helburu multzo bat du ondorengo zerrendan laburbildu daitekeena:

- Eskola berria eraikitzeke orubea lortzea
- Elbarrena kalearen paraleloa den bigarren kale bat sortzea Elbarrena kalean ibilgailuen presentzia murriztu ahal izateko.
- Herriko espazio berdeak zabaltzea, batik bat Araxes hertzean pasealeku bat eratzea.
- Etxebizitza berriak eraikitzea.

Helburu hauek gauzatzeko ezinbestekoa ikusi da definitutako A2 eremua osorik hartzea (14.065 m²).

Alde batetik eremuaren bideragarritasuna bermatzeko eta bestetik, jasangarritasun irizpideei jarraikiz, dentsitate baxuko ezarpenak saihestuz, hektareako 34,52 etxebizitzako ezarpena aurreikusi da.

Aurkeztutako proposamenarekin, eremuko irabazizko aprobetxamenduak 12,43 etxebizitza libre/hektareako eta 13,8 babestutako etxebizitza/hektareako izatera pasako lirатеke. Lizartzan gainerako eremuetan aurreikusi diren aprobetxamenduekin alderatuta askoz baxuagoak lirатеke alegazioak, berak, lurzoru hiritarreko lurjabeen artean eskatzen duen banaketa edo berdintasun hori hautsiz eta batik bat, eremuaren bideragarritasuna oso zalantzan ipiniz.

Alegazioan esaten den zerbaitekin ados gaude ordea, etapa desberdinetan garatu behar lirатеke eremu honetan aurreikusten diren etxebizitzak, ahal den neurrian Lizartzako beharrei erantzun diezaien etxebizitza berriek.

Era berean, babestutako etxebizitza gehiago antolatzea ere posible izan daiteke, eremuaren bideragarritasuna mantentzen den heinean.

Bi alderdi hauek, beraz, aztertu daitezkeela deritzogu.

4. Alegazioa: Alondegia mantentzea proposatzen dute, beheko eta lehen solairuan alokairuzko apartamentuak eginez eta bigarren solairuan, berriz, erabilera anitzetako zuzkidura mantenduz. Gainera, eraikina ondare historiko-artistikoa bezala sailkatua omen dago Gipuzkoako Higiezinaren inbentarioan eta honek berau mantentzea indartzen duela diote.

4.Txostena: Beheko solairuak ez du gure ustez etxebizitza izateko bizigarritasun baldintza. Apartamentuak alokairuan Udalak kudeatuz ez dirudi bideragarria izan daitekeenik Udalaren gaitasun ekonomikoa kontutan hartuta. Hala ere, hauek gai politikoak dira eta ez teknikoak

- 3.- Hamar eguneko epean, kontratistari esleipen kontratuaren ebazpen hau jakineraztea, hamabost eguneko epean, behin betiko bermea jarri duela egiaztatu ahal izateko, eta hogeita hamar eguneko epean, administrazio kontratuan, esleipena gauzatzeko. Halaber, gainerako partaideei jakinerazpen bera egingo zaie.

OSASUN ZENTRUAN IGOGAILUA

Bi mila eta seiko apirilaren hamabian ospatutako bilkuran, Lizartzako Sendagile Etxean Igogailua jartzeko Kontratazio Lanen kontratuaren adjudikazio proposamena luzatu zen, ORONA S. Coop. enpresaren alde, bera izan delako proposamenik egokiena aurkeztu duena.

Bilkura horretan luzatutako akta aztertu eta berarekin ados, ERABAKI DUT:

- 1.- Lehiaketa negoziatua balioestea eta, Lizartzako Sendagile Etxean Igogailua jartzeko Kontratazioa, HAMABOST MILA BEDERATZIEHUN ETA HIRUROGEITA BOST euro ZORTZI Zentimo (15.965,08,-)€-tako proposamena (Bez barne delarik) aurrekontuarekin adjudikatzea.
- 2.- Indarrean dagoen Aurrekontuko 622.313.08.01 partidaren kargura, 13.293,87 €-tako gastua onartzea.
- 3.- Hamar eguneko epean, kontratistari esleipen kontratuaren ebazpen hau jakineraztea, hamabost eguneko epean, behin betiko bermea jarri duela egiaztatu ahal izateko, eta hogeita hamar eguneko epean, administrazio kontratuan, esleipena gauzatzeko. Halaber, gainerako partaideei jakinerazpen bera egingo zaie.

BILKURAKO NAGUSIRAKO DEIAK

2006-12-30

Idazkariak prestatutako espedienteen zerrenda ikusirik, berak lagunduta, eta Antolaketa eta Ihardutze Araudiaren 82.1 artikulua, eta arau baterakorrak ikusirik, ERABAKI DUT:

- 1.- ABENDUAREN 30an, goizeko 8tarako, Bilkura Nagusirako deia luzatzea, hurrengo GAI ZERRENDAREKIN:

- 1.- Aurreko Bilkurako Akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.
- 2.- Langileen Hitzarmena.
- 3.- Aurrekontuaren Kreditu Aldaketa 2/2005
- 4.- 2006 urterako Aurrekontu Orokorra.
- 5.- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren Araudia.
- 6.- Alkatetza Dekretuak.
- 7.- Bestelakoak.

- 2.- Idazkariak, Udaleko zinegotziei deia egiteko, beharrezko diren tramiteak burutuko ditu, erabaki hau beteaz.

2006-02-20

Idazkariak prestatutako espedienteen zerrenda ikusirik, berak lagunduta, eta Antolaketa eta Ihardutze Araudiaren 82.1 artikulua, eta arau baterakorrak ikusirik, ERABAKI DUT:

- 1.- OTSAILAREN 20an, goizeko 8tarako, Bilkura Nagusirako deia luzatzea, hurrengo GAI ZERRENDAREKIN:

- 1.- Lizartzako Arau Subsidiarioen Berrikuspenari Eginiko Aldaketen Lehen Onarpena.

- 2.- Idazkariak, Udaleko zinegotziei deia egiteko, beharrezko diren tramiteak burutuko ditu, erabaki hau beteaz.

2006-06-14

Idazkariak prestatutako espedienteen zerrenda ikusirik, berak lagunduta, eta Antolaketa eta Ihardutze Araudiaren 82.1 artikulua, eta arau baterakorrak, ikusirik, ERABAKI DUT:

1.- EKAINAREN 14an, goizeko 8tarako, Bilkura Nagusirako deia luzatzea, hurrengo GAI ZERRENDAREKIN:

- 1.- Aurreko Bilkuretako Aktak irakurri eta, hala badagokio, onartzea.
- 2.- Udalhitz.
- 3.- Aurrekontuaren Kreditu Aldaketa 1/2006.
- 4.- 2005 urteko Aurrekontuaren Kontu Orokorra.
- 5.- Udalbide - 2006-06-13
- 6.- Euskaltegiaren Desafektazioa.
- 7.- A-2, Hirigintza Hitzarmena.
- 8.- Lizartzako Arau Subsidiarioen Behin Behineko onarpena.
- 9.- Alkatetza Dekretuak.
- 10.- Bestelakoak.

2.- Idazkariak, Udaleko zinegotziei deia egiteko, beharrezko diren tramiteak burutuko ditu, erabaki hau beteaz.

DIRULAGUNTZAK

UDALBIDE

Lizartzako Udalak, 2004ko abenduaren 28an eginiko Bilkura Nagusian, 2005 urterako Aurrekontu Orokorra onartu zuen, non, Udalbide Elkarlan Elkarteari, 2.188,81 €-tako diru laguntza ematea aurrikusten den.

Hori kontutan hartuta, ERABAKI DUT:

2005 urteko aurrekontuaren kargura, 2.188,81 €-tako diru-laguntzaren ordainketa agintzea, 2005 urteko Aurrekontuaren 421.121.01.01 partidaren kontura, aurrez hitzarmen arautzaile bat izenpetzekotan.

Udaleko Kontuhartzaitzari, aipatutako 2.188,81 €-tako diru-laguntza ordaintzeko agintzea.

BETEBEHARRAK:

- 1.- Dirulaguntza aurreko eta ondorengo tramitazioan (memoriak, txostenak, balantzeak, aurrekontuak e.a.) idatzizko eta ahozko harremanak euskaraz izatea.
- 2.- Dirulaguntzaren helburua den ekitaldia euskaraz egingo dela garantizatzea.
- 3.- Elkarteak bere gain hartuko ditu ekintzen ondorioz sortu ahal diren erantzukizun guztiak, eta ekintzok egiteko beharrezkoak diren baimenak eskatzea ere bai.
- 4.- Elkarteak, diruz lagunduriko egitarauan gertatu ahal den edozein ustekaberen berri ahalik eta azkarren emango du.
- 5.- Edozer dela-eta, gasturik egiten ez bada edo dirulaguntza ematerakoan kontuan hartu izan ziren helburuak zati handi baten betetzen ez badira, eskuratutako dirulaguntza bueltatu beharko du.

OLATZ SOLIS LOPEZ

OLATZ SOLIS LOPEZ-ek, 2006ko otsailaren 17an, Espetxean dagoen Aimar Altuna Ijurko mutil-lagunaren bisita egiteko joan-etorri gastuetarako laguntza eskatu du.

Aurkeztutako datuak aztertu ondoren, ERABAKI DUT:

Hilero, 120,00 €-ko diru-laguntza ematea.

Udaleko Kontuhartzaitzari, hilero aipatutako 120,00 €-tako diru-laguntza ordaintzeko agintzea.

TOLOSA HERRIA HEDABIDEA, SL.

TOLOSA HERRIA HEDABIDEA, S.L., 2006ko martxoaren 31an, 2006 urtean Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA argitaratzeko, laguntza eskatu du.

Aurkeztutako datuak aztertu ondoren, ERABAKI DUT:

2006 urteko aurrekontuaren kargura, 1.821,00 €-tako diru-laguntza onartu eta baimentzea.

Udaleko Kontuhartzaitzari, aipatutako 1.821,00 €-tako diru-laguntza ordaintzeko agintzea.

OTSABIO KIROL ELKARTEA

Otsabio Kirol Elkarteak, 2206ko Martxoaren 18an, AFIZIONATUENTZAT izango den XVIII. TXIRRINDULARI FROGRA-ren alde laguntza eskatu du:

* 800,00 €-tako diru-laguntza

* Karrera egunerako frontoiko aldagelak eta dutexak.

Aurkeztutako datuak aztertu ondoren, ERABAKI DUT:

Eskatutako diru-laguntza onartu eta beste eskaerakin batera baimentzea.

Udaleko Kontuhartzaitzari, aipatutako 800,00 €-tako diru-laguntza ordaintzeko agintzea.

HERRI URRATS 2006

HERRI URRATS-ek, 2006ko Maiatzaren 14an, Senpereko aintziraren inguruan ospatuko den Herri Urrats Ikastolen festa-ren alde laguntza eskatu du.

Aurkeztutako datuak aztertu ondoren, ERABAKI DUT:

300,00 €-tako diru-laguntza onartu eta baimentzea.

Udaleko Kontuhartzailtzari, aipatutako 300,00 €-tako diru-laguntza ordaintzeko agintzea.

IGOKA ESPEDIENTEA. JASOTZAILE EKIPOEN ERAIKUNTZA ETA MERKATURATZE JARDUERA

IKUSIRIK.- ONIK SISTEMAS DE ELEVACIÓN S.L.k, Irunzubi Industrialdea, 7an kokatuko den, JASOTZAILE EKIPOEN ERAIKUNTZA ETA MERKATURATZE JARDUERA egiteko baimena eta iharduera horri ekiteko jarraitutako espedientea ikusiz gero.

IKUSIRIK.- Kontutan hartuaz, bere tramitazioa, aplikagarri diren legeen arabera egokitu dela, espedientean, Udal Teknikariek eta Osakidetzak luzatutako txostenak daudela, eta interesatuei dei egin zaiela, jendaurrean jarritako iragarkien bidez.

KONTUAN HARTUAZ.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, aldeko txostena luzatu duela.

Horren arabera, zera ERABAKI DUT:

- 1.- ONIK SISTEMAS DE ELEVACIÓN S.L.k aurkeztu duen, herri honetako Irunzubi Industrialdea, 7an kokatuko den, JASOTZAILE EKIPOEN ERAIKUNTZA ETA MERKATURATZE JARDUERA Irekiera baimena egiteko eskaturiko baimenari, aldeko txostena luzatzea.
- 2.- Ihardueraren ezaugarrien arabera, JASOTZAILE EKIPOEN ERAIKUNTZA ETA MERKATURATZE JARDUERA kalifikazioa proposatzen da.

2005 URTEKO 4. HIRUHILABETEKO UR ETA ZABORREN ZERGAREN ERROLDA ONARTZEA

Joseba Egibar Artola, Lizartzako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2006ko Urtarrilaren 23-an, ondorengo EBAZPENA luzatu du:

EBAZPENA.- 2005-eko 4. Hiruhilabeteari dagokion Zaborraren Zergaren errolda iadanik egina dago alta eta baja guztiak eguneratu ondoren. **Denetara 333 errezibo dira eta kobratu beharreko kopurua, 4.068,00 €**

Beraz, espediente osoa ikusirik eta kontutan izanik, bere aurrean ERABAKI DUT:

2005 URTEKO 4. HIRUHILABETEKO ZABORRAREN ZERGAREN ERROLDA ONARTZEA

Ebazpen hau behin-betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, beronen aurka Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsua aurkeztu ahal izango dute interesatuek, Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazio Liskarretako Salan, iragarki hau argitara ematen den hurrengo egunetik bi hilabeteko epean, alde zuzenetik udaletxeari adierazita legeak, Herri Administrazioen Lege Arauei eta Administrazio Ihardunbide Arruntari buruzkoak, 110.3 artikuluan dioen bezela.

2006 URTEKO IBILGAILUEN ZERGAREN ERROLDA ONARTZEA

Joseba Egibar Artola, Lizartzako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2006ko otsailaren 22-an, ondorengo EBAZPENA luzatu du:

EBAZPENA.- 2006 urteari dagokion Ibilgailuen Zergaren errolda iadanik egina dago alta eta baja guztiak eguneratu ondoren. **Denetara 454 errezibo dira eta kobratu beharreko kopurua, 36.695,30 €**

Beraz, espediente osoa ikusirik eta kontutan izanik, bere aurrean ERABAKI DUT:

2006 URTEKO IBILGAILUEN ZERGAREN ERROLDA ONARTZEA

Ebazpen hau behin-betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, beronen aurka Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute interesatuek, Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazio Liskarretako Salan, iragarki hau argitara ematen den hurrengo egunetik bi hilabeteko epean, aldezturik udaletxeari adierazita legeak, Herri Administrazioen Lege Arauei eta Administrazio Ihardunbide Arruntari buruzkoak, 110.3 artikuluan dioen bezela.

LIZARTZAKO U-1 INDUSTRI EREMUAREN HIRITARTZE PROIEKTUAREN BEHIN BETIKO ONARPENA

Alkatetza honek, bi mila eta lauko uztailaren hogeita zortziko ebazpenaren bidez, "Lizartzako Laguntzako Arauetako U-1 Industri Eremuaren Hiritartze Proiektua"ri lehen onarpena eman zion.

KONTUTAN HARTUAZ.- Erabaki hori, 2004ko Abuztuaren 11ko, 153. zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta 2004ko Abuztuaren 12ko Berria egunkarian, hamabosteko epean, jendeaurrean egon zela, eta ez zela inola alegaziorik jaso.

TJOL.ko 54. eta Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudiaren 173. Artikuluaren arabera, Idazkariak Txostena luzatu du.

TJOL.ko 114. eta Planeamenduko Erregelamenduaren 130 eta 131. artikuluek ikusirik,
ERABAKI DUT

1.- "Lizartzako Laguntzako Arauetako U-1 Industri Eremuaren Hiritartze Proiektua"ri, behin-betiko onarpena ematea.

2.- Erabakia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

URBA UTE-ri APROBETXAMENDUAREN LIKIDAZIOA (ECEIZA ETXEA)

IKUSIRIK.- Jose Ignacio Galarraga Jaunak, URBA UTE-ren izenean aurkeztutako, U-1 Industrialdean Industria eraikinerako eraikitze proiektua (Eceiza Etxea), obratako udal baimena eskatuaz.

IKUSIRIK.- Proiektua aztertu ondoren, Udaleko Arkitekto Aholkulariak luzatu duen txostena, non agertzen den, eraikin horretan tarteko solairua eraiki dela.

KONTUTAN HARTUAZ.- 2004ko otsailaren 27an sinatutako hitzarmenaren 4. artikularen azken paragrafoan, honela diola:

Hitzarmen honetan finkatutako hirigintza aprobetxamenduak ez du jasotzen tarteko solairuetan eraikigarria den azaleraren likidazioa. Likidazio hori onartutako obra proiektuen arabera izango da, eta guztiek espediente bakoitzean eraikitzen den azalera adierazi beharko dute. Kasu horietan, irabazizko aprobetxamenduaren %10eko balioa horiek eraikitzean udaleko teknikariek indarrean dauden legeen arabera ezarritako balioespenaren arabera finkatuko da.

KONTUTAN HARTUAZ.- Udaleko Arkitekto Aholkulariak eginiko baliospenaren arabera, aprobetxamendu horren %10aren balioa, 17.504,00 €-tako dela.

Guzti hori kontutan hartuaz, zera ERABAKI DUT:

1.- Udaleko Arkitekto Aholkulariak eginiko baliospena onartu eta Jose Ignacio Galarraga, URBA UTE-ko ordezkariari, 17.504,00 €-tako kopurua udalari ordaintzeko eskatzea, aurreago aipatutako hitzarmenaren 4. artikulua dioena beteaz.

Ordainketa hori, Udalaren izenean, KUTXAn dagoen, 2101.0053.75.0002206308 zenbakidun kontuan egin beharko da; ordainketa egiteko azken eguna: 2006ko martxoaren 10.

Era berean, jakinaraztea, errekurtsio nahiz erreklamazio hauek aurkez daitezkeela:

- 1.- Berraztertze errekurtsioa jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko diru-erreklamazioaren aurretik, kitapen honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasi eta 15 egun barru; eta Alkateari aurkeztu behar zaio.

Administrazioarekiko diru-erreklamazioa zuzen-zuzenean jar daiteke, alde aurretik berraztertze errekurtsorik jarri gabe, kitapen honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasi eta 15 egun barru; eta, aurkeztu, Gipuzkoako Foru Diputazioko Administrazioaren Ekonomia Auzitegiari aurkeztu behar zaio. Erreklamazioaren aurretik berraztertze errekurtsioa jarri izan bada, beronen erantzunaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasi eta 15 egun barru, aurkeztuko da beste hura.

BAZURKA SYSTEMS FOR LANDFILLING S.L. eta MARIA ANGELES LARRAÑAGA ARREGI-ri LURRAK BAIMENTZEKO BAIMENA

JOSE IGNACIO GALARRAGA URRETAVIZKAIA Jaunak, NAN 15.966.525 V zenbakidunak, Tolosako, Iruñako Etorbidea, 12an helbidea duen, N.I.F. B20550307 zenbakia duen, BAZURKA SYSTEMS FOR LANDFILLING S.L.ren izenean eta MARIA ANGELS LARRAÑAGA ARREGUI Andrea, Tolosako Aldabalde Zentruan helbidea duena, eta N.I.F. B20538419 zenbakia duen UR-ARGI S.L.ren izenean, 2006ko otsailaren 21an eskaria aurkeztu du; horren bidez, aipatu eskatzaileak, hala balegokio, dagokion udal-baimena ematea eskatzen dute, beren jabetzakoak diren, U-1 Industrialdeko P2, P3 eta P4 partzeletatik, aurreago aipatzen den lur zatia banantzeko:

- 1.- “En la parcela P3, en su zona colindante con la parcela P2 y zona de Equipamiento Público Comercial cedido al Ayuntamiento, se ha definido una franja de suelo privado no edificable de 433,98 m²”

Bere jabetzako partzeletatik zati hori banandu, ondoren, saldu ahal izateko. Partzela hori P2 partzelari erantsiko zaio.

Deskribatutako egitatezko suposamendu hori ez da sartzen, 1/1992 Errege Dekretu Legearen 242. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera (horren bidez Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Erregimenaren Legearen eta Hirigintza Disziplinarekin Erregelamenduaren 1. Artikuluaren gaineko Testu Bateratua onartzen da), dagokion udal-baimenaren aurretik izan beharreko egitateetan.

Eta hori horrela da, izan ere, badirudi egin nahi den bereizketak ezin dela hirigintza-partzelario gisa jo; iharduketa horrek ez du eskatzen soilik lurzati baten zatiketa edo bereizketa hutsa, gerora begira hirigune baten sorrera eman dezake, ordea.

Esandakoaren arabera, eta uztailaren 4ko 1093/1997 Errege Dekretuaren 78. artikuluan agindutakoa betetzeko asmoz (horren bidez Erregelamendurekiko Arau Osagarriak onartzen dira Jabetza Erregistroan hirigintza-izaerako egitateen izen ematearen gainean Hipoteka Legea gauzatzeko), erabaki da Segregazioa egiteko BAIMENA EMATEA.

JUAN CARMELO GOIKOETXEA GOIKOETXEAUNDIA – LURRAK
BANANTZEKO BAIMENA

JUAN CARMELO GOIKOETXEA GOIKOETXEAUNDIA Jaunak, Lizartzako Arostegi Baserrian helbideratua, 2006ko martxoaren 29an eskaria aurkeztu du; horren bidez, aipatu eskatzaileak, hala balegokio, dagokion udal-baimena ematea eskatzen du, bere jabetzakoa den, lur zati honetatik:

- 1.- “Terreno sembradío denominado Celaya-mendibecos en Lizartza, que linda Norte y Oeste, con el río Araiz o Araxes; Este, carretera de Navarra y Sur, propiedades de la casería Venta Berri. Tiene treinta y nueve áreas y cincuenta y seis centiáreas de superficie (3.956 m²). Inscrita: Tomo 1.242, Libro 22, Folio 160, Finca 903-1-N, Inscripción 4^a. Se corresponde con la parcela nº 541 del Polígono nº 1 de Lizartza según el catastro”

108,5 m² lur zatia segregatu, ondoren, Juan San Sebastian Murua-ri saltzeko, honek bere jabetzari lotu ahal izateko.

Deskribatutako egitatezko suposamendu hori ez da sartzen, 1/1992 Errege Dekretu Legearen 242. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera (horren bidez Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Erregimenaren Legearen eta Hirigintza Disziplinaren Erregelamenduaren 1. Artikuluaren gaineko Testu Bateratua onartzen da), dagokion udal-baimenaren aurretik izan beharreko egitateetan.

Eta hori horrela da, izan ere, badirudi egin nahi den bereizketak ezin dela hirigintza-partzelario gisa jo; iharduketa horrek ez du eskatzen soilik lurzati baten zatiketa edo bereizketa hutsa, gerora begira hirigune baten sorrera eman dezake, ordea.

Esandakoaren arabera, banaketa eta bereizketa hori egiteko BAIMENA EMATEN da, baldintza honekin:

JUAN SAN SEBASTIAN MURUA Jaunak, lur zati hori bere jabetzari lotu beharko dio.

LURREN PERMUTARAKO, LURRA BANANTZEKO BAIMENA

JOSEBA EGIBAR ARTOLA Jaunak, NAN 15.939.549 C zenbakidunek, Lizartzako Udaletxearen izenean, 2006ko otsailaren 10ean eskaria aurkeztu du; horren bidez, aipatu eskatzaileek, hala balegokio, dagokion udal-baimena ematea eskatzen du, beren jabetzakoa den, AZTINONDO Pilotalekuaren ifarraldean dagoen lurratik:

1.- "URBANA: FRONTON AZTINONDO en Lizartza, que linda al Norte: con C^a Soroanea, al Sur, con Castor Olaetxea, al Este, con camino público y al Oeste, con Agustin Goikoetxeaundia. Tiene una superficie de 1.098 m².

Pilotalekuaren ifarraldean dagoen lurrik, 84,60 m²-ko lurra segregatu eta Lorenzo Zubeldia Aierbe eta Genara Beldarrain Zubillaga Jaun/Andrearekin permuta egin ahal izateko.

Lur horren deskripzio berria honela geldituko litzateke:

1.- "URBANA: FRONTON AZTINONDO en Lizartza, que linda al Norte: con terreno permutado a D. Lorenzo Zubeldia y Genara Zubillaga, al Sur, con Castor Olaetxea, al Este, con camino público y al Oeste, con Agustin Goikoetxeaundia. Tiene mil trece m² y cuarenta dm² (1.013,40) m².

Lorenzo Zubeldia Aierbe eta Genara Zubillaga Beldarrain Jaun/Andreei ematen zaien lurraren deskripzioa, hau izango da:

1.- "AZTINONDO izena eta 84,60 m²-ko azalera duen lurra. Mugak: Ifarra: Soroanea Etxea; Mendebaldetik: Agustin Goikoetxeaundia; Hegoaldetik: herri bidea eta Ekialdetik: Lizartzako Udala. Lur horren gainen, BIDE-ZORTASUNA ezartzen da, Lizartzako Udalaren alde.

Permutatzen den lur hau, Lorenzo Zubeldia Aierbe eta Genara Beldarrain Zubillaga Jaun/Andreen jabetzakoa den SOROANEA etxeari lotu beharko zaio.

Deskribatutako egitatezko suposamendu hori ez da sartzen, 1/1992 Errege Dekretu Legearen 242. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera (horren bidez Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Erregimenaren Legearen eta Hirigintza Disziplinen Erregelamenduaren 1. Artikuluen gaineko Testu Bateratua onartzen da), dagokion udal-baimenaren aurretik izan beharreko egitateetan.

Eta hori horrela da, izan ere, badirudi egin nahi den bereizketak ezin dela hirigintza-partzelario gisa jo; iharduketa horrek ez du eskatzen soilik lurzati baten zatiketa edo bereizketa hutsa, gerora begira hirigune baten sorrera eman dezake, ordea.

Esandakoaren arabera, banaketa eta bereizketa hori egiteko BAIMENA EMATEN da.

LORENZO ZUBELDIA-GENARA BELDARRAIN

LORENZO ZUBELDIA AIERBE eta GENARA BELDARRAIN ZUBILLAGA Jaun/Andreek, NAN 15.225.350 V eta NAN 15.139.064 G zenbakidunek, Lizartzako, Soroarena etxean helbideratuak, 2006ko otsailaren 10ean eskaria aurkeztu dute; horren bidez, aipatu eskatzaileek, hala balegokio, dagokion udal-baimena ematea eskatzen dute, beren jabetzakoa diren, lurratatik bereizketa egiteko:

- 1.- “El terreno antepuerta de los lados Este y Sur de la casa, mide cuarenta y tres metros cuadrados y linda por Oeste con la casa y su huerta, por Este con camino vecinal, y por Norte con la casa y antepuerta de la casa Chomin-buru y por Sur con la uerta de la propia casa y la de la casa Venturanea”
- 2.- “Casa llamada Intxaurrondo, que con inclusión de un corral o tejavana y sus antepuertas ocupa doscientos treinta y ún metros ochenta y seis decímetros cuadrados, y confina todo por Este con un camino carretil público, por Sur con la casa llamada Elizburu, por Oeste con otro camino carretil público que existe entre la antepuerta de la finca que se describe y la Iglesia, y por Norte con otro camino carretil público.

1. finkatik 30 m²-ko lurra eta 2. finkako ateaurretik 20 m² bereiztu nahi dira ondoren, Lizartzako Udalarekin permuta egin ahal izateko.

Lur hoiien deskripzio berria honela geldituko litzateke:

- 1.- “El terreno antepuerta de los lados Este y Sur de la casa, mide trece metros cuadrados y linda por Oeste con la casa y su huerta, por Este con camino vecinal, y por Norte con la casa y antepuerta de la casa Chomin-buru y por Sur con la huerta de la propia casa y la de la casa Venturanea”

2.- “Casa llamada Intxaurrondo, que con inclusión de un corral o tejavana y sus antepuertas ocupa doscientos once metros ochenta y seis decímetros cuadrados, y confina todo por Este con un camino carretil público, por Sur con la casa llamada Elizburu, por Oeste con otro camino carretil público que existe entre la antepuerta de la finca que se describe y la Iglesia, y por Norte con otro camino carretil público.

Udalari ematen zaizkion lurak gaur egun herri bide dira.

Deskribatutako egitatezko suposamendu hori ez da sartzen, 1/1992 Errege Dekretu Legearen 242. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera (horren bidez Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Erregimenaren Legearen eta Hirigintza Disziplinaren Erregelamenduaren 1. Artikuluaren gaineko Testu Bateratua onartzen da), dagokion udal-baimenaren aurretik izan beharreko egitateetan.

Eta hori horrela da, izan ere, badirudi egin nahi den bereizketak ezin dela hirigintza-partzelario gisa jo; iharduketa horrek ez du eskatzen soilik lurzati baten zatiketa edo bereizketa hutsa, gerora begira hirigune baten sorrera eman dezake, ordea.

Esandakoaren arabera, banaketa eta bereizketa hori egiteko BAIMENA EMATEN da.

OLATZ SOLIS LOPEZ(e)k ESKATUTAKO GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZA ONARTZEN DUEN 2006ko OTSAILAREN 10eko EBAZPENA

OLATZ SOLIS LOPEZ(e)k Gizarte Larrialdietarako Laguntzaren egindako eskaera ikusirik, Gizarte Larrialdietarako Laguntzazk arautzen dituen apirilaren 20k 199/1999 Dekretuak xedatutakoari jarraituz eta ondokoak kontuan harturik.

AURREKARIAK

LEHENA.- 72449053L NAN zenbakia duen OLATZ SOLIS LOPEZ jaun/adnreak, 2006ko otsailaren 8an Gizarte Larrialdietarako Laguntzaren eskaera

aurkeztu zuen, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen apirilaren 20ko 199/1999 Dekretuan ezarritakoaren babespean.

BIGARRENA.- OLATZ SOLIS LOPEZ jaun/andreak egiaztatzen du eskaera aurkeztu baino gutxienez sei hilabete aurretik egon dela Euskal Autonomia Erkidegoko eroldaren batean.

Aipatutako aurrekariari dagokienez, honakoak aplikatu dakizkieke:

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENA.- Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen apirilaren 20ko 199/1999 Dekretuak adierazten duenez, eskatzailea bizi den udalerriko udalak izapidetu du espedientea.

BIGARRENA.- Maiatzaren 22ko gizarte bazterkeriaren aurkako 12/1998 Legearen 42. artikulua xedatzen duenez, Lizartzako Udala entitatea da Gizarte-Larrialdietarako-Laguntzak ematea onartzeko edo ukatzeko eskumena duen organoa.

HIRUGARRENA.- Eskabidea eta erantsitako agiriak azterturik, eskabidearen oinarri diren Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen apirilaren 20ko 199/1999 Dekretuak, eta maiatzaren 22ko 12/1998 Legeak, gizarte bazterkeriaren aurkakoak, xedatzen dituzten betekizunak betetzen direla egiaztatu da.

ONDOKOAK IKUSIRIK: Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen apirilaren 20ko 199/1999 Dekretua, maiatzaren 22ko 12/1998 Legea, gizarte bazterkeriaren aurkakoak; azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena; eta oro har eta batera aplikatu bearreko gainerako lege-arauak.

Ondorioz, eta eman zaizkidan ahalmenez baliaturik, ondokoa

EBATZI DUT

72449053L NAN zenbakia duen OLATZ SOLIS LOPEZ jaun/andreari Gizarte Larrialdietarako Laguntza **EMATEA**, ondoko taulan agertzen diren kontzeptu, epe eta hileroko zenbatekoekin.

Zeren Kontzeptuan	Kopurua	Epea	Guztira
Kredituen Interesak/Amortizazioak	189,78	2006/02/08- 2006/08/97	1.138,68
GUZTIRA			1.138,68

72449053L NAN zenbakia duen OLATZ SOLIS LOPEZ jaun/andreari Gizarte Larrialdietarako Laguntza **EZ EMATEA**, ondoko taulan agertzen diren kontzeptuekin eta arrazoiengatik.

KONTZEPTUA	ARRAZOIA
Bestelako Mantenimendu Gastuak	Bestelakoak
Lehentasunezko Beharrak	Bestelakoak
Zorpeketa	Bestelakoak

Laguntza hauek helburu zehatz batekin ematen dira, eta eman diren helbururako baino ezin dira erabili. Beranduago udalak konprobatu beharko du helburu hori errespetatu den, eta onuradunak egindako gastuak fakturak edo ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, horretarako zehaztutako epearen barruan.

Fakturak edo ziurtagiriak aurkezteko gehienezko epea hilabete batekoa izango da, jakinarazpen egunaren biharamunetik kontatzen hasita, ordainketa bakar bat egiten bada. Zatikako ordainketen kasuan, berriz, 15 eguneko epean aurkeztu behar dira faktura edo ziurtagiri horiek, zatikako ordainketa bakoitza egiten den unetik kontatzen hasita. Faktura edo ziurtagiriak aipatutako epearen barruan aurkezten ez badira, prestazioak itzultzeko prozedurari ekingo zaio, hala badagokio.

Halaber, laguntzak emateko baldintza oraindik betetzen direla konprobatuko du Udalak, dagozkion bitartekoak erabiliz.

Dauden aurrekontu-baliabideak kontuan harturik, ebazpen honen bidez emandako zenbatekoa gutxitu ahal izango da, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen apirilaren 20ko 199/1999 Dekretuaren 14. artikulua xedatzen duenaren arabera.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri daiteke dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epategiaren aurrean, BI HILABETEKo epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edo, nahi bada, birjarpen errekurtsua ebazpen hau eman duen organoaren beraren aurrean, HILABETEKo epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Organo horrek emandako ebazpen adieraziaren zein adierazi gabearen aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epategiaren aurrean, BI HILABETEKo epean, errekurtsua ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edo SEI HILABETEKo epean, errekurtsuaren presuntziozko ezespena gertatzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

BERMEAK ITZULTZEA

IKUSIRIK.- A-4 gunean, urbanizazio lanak amaitu direlarik, eta hauek eragin zezaketen kalteak bermatzeko, Construcciones Francisco Ayerbe, S.L.k jarritako, 30.050,61 €-tako bermeak itzultzeko eskaera.

KONTUTAN HARTUAZ.- 2006-01-27 datako 18 zk.ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dela eskaera, eta hamabost egunetako epe horretan, ez dela inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Guzti hori kontutan izanik, ERABAKI DUT:

- 1.- Construcciones Francisco Ayerbe, S.L.ri, A-4 gunean, urbanizazio lanak bermatzeko jarritzako 30.050,61 €-tako bermeak itzultzea.

GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZA FATIMATOU EL BAR ABDEDAIMI

FATIMATOU EL BAR ABDEDAIM(e)k gizarte larrialdietarako laguntzaren egindako eskaera ikusirik, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen apirilaren 20ko 199/1999 Dekretuak xedatutakoari jarraituz eta ondokoak kontuan harturik

AURREKARIAK

- 1.- 0902283 NAN zenbakia duen FATIMATOU EL BAR ABDEDAIM andreak 2006ko otsailaren 17an Gizarte Larrialdietarako Laguntzaren eskaera aurkeztu zuen, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen apirilaren 20ko 199/1999 Dekretuan ezarritakoaren babespena.
- 2.- FATIMATOU EL BAR ABDEDAIM andreak egiaztatzen du eskaera aurkeztu baino gutxienez sei hilabete aurretik egon dela Euskal Autonomia Erkidegoko erroldaren batean.

Aipatutako aurrekariei dagokienez, honakoak aplikatu dakizkieke:

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENA.- Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen apirilaren 20ko 199/1999 Dekretuak adierazten duenez, eskatzailea bizi den udalerriko udalak izapidetu du espedientea.

BIGARRENA.- Maiatzaren 22ko gizarte bazterkeriaren aurkako 12/1998 Legearen 42. artikulua xedatzen duenez, Lizartzako Udala entitatea da Gizarte-Larrialdietarako-Laguntzak ematea onartzeko edo ukatzeko eskumena duen organoa.

HIRUGARRENA.- Eskabidea eta erantsitako agiriak azterturik, eskabidearen oinarri diren Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen apirilaren 20ko 199/1999 Dekretuak, eta maiatzaren 22ko 12/1998 Legeak, gizarte bazterkeriaren aurkakoak, xedatzen dituzten betekizunak betetzen direla egiaztatu da.

ONDOKOAK IKUSIRIK: Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen apirilaren 20ko 199/1999 Dekretua, maiatzaren 22ko 12/1998 Legea, gizarte bazterkeriaren aurkakoak; azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena; eta oro har eta batera aplikatu bearreko gainerako lege-arauak.

Ondorioz, eta eman zaizkidan ahalmenez baliaturik, ondokoa

EBATZI DUT

0902283 NAN zenbakia duen FATIMATOU EL BAR ABDEDAIM andreaki Gizarte Larrialdietarako Laguntza **EMATEA**, ondoko taulan agertzen diren kontzeptu, epe eta hileroko zenbatekoekin.

Zeren Kontzeptuan	Kopurua	Epea	Guztira
Alkilerria	168,00	2006-02-17 2006-08-16	1.008,00
GUZTIRA			1.008,00

Laguntza hauek helburu zehatz batekin ematen dira, eta eman diren helbururako baino ezin dira erabili. Beranduago udalak konprobatu beharko du helburu hori errespetatu den, eta onuradunak egindako gastuak fakturak edo ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, horretarako zehaztutako epearen barruan.

Fakturak edo ziurtagiriak aurkezteko gehienezko epea hilabete batekoa izango da, jakinarazpen egunaren biharamunetik kontatzen hasita, ordainketa

bakar bat egiten bada. Zatikako ordainketen kasuan, berriz, 15 eguneko epean aurkeztu behar dira faktura edo ziurtagiri horiek, zatikako ordainketa bakoitza egiten den unetik kontatzen hasita. Faktura edo ziurtagiriak aipatutako epearen barruan aurkezten ez badira, prestazioak itzultzeko prozedurari ekingo zaio, hala badagokio.

Halaber, laguntzak emateko baldintza oraindik betetzen direla konprobatuko du Udalak, dagozkion bitartekoak erabiliz.

Dauden aurrekontu-baliabideak kontuan harturik, ebazpen honen bidez emandako zenbatekoa gutxitu ahal izango da, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen apirilaren 20ko 199/1999 Dekretuaren 14. artikulua xedatzen duenaren arabera.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri daiteke dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epategiaren aurrean, BI HILABETEKo epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edo, nahi bada, birjarpen errekurtsua ebazpen hau eman duen organoaren beraren aurrean, HILABETEKo epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Organo horrek emandako ebazpen adieraziaren zein adierazi gabearen aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epategiaren aurrean, BI HILABETEKo epean, errekurtsua ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edo SEI HILABETEKo epean, errekurtsuaren presuntziozko ezespena gertatzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

GOLTZUR ZELAI – ANGEL GARRIDO-ri SANTZIO ESPEDIENTEA IREKITZEA

IKUSIRIK 2006ko maiatzaren 10ean Lizartzako Udal Arkitektoak egindako txostena.

JAKINIK Goltzur Zelai kokatutako eremua ikuskatzera egindako bisitaren ondoren, Goltzur Zelaiko zonaldean, udal baimenik gabe bertan,

Gazteluko mugatik Goltzur baserriraino doan pista bat ireki dela adierazten da aipatutako txosten horretan.

JAKINIK 2004ko martxoaren 4an, Angel Garrido Alonso jaunari, Gaztelutik Goltzur Zelaira zioan bidea konpontzeko baimena eman zitzaioela, baina, alde batetik, baimen hori denboraren ondorioz kadukaturik dagoela, luzapena eskatzea ezin besteko bai da indarrean jarraitzeko; eta bestetik, Goltzur Zelai lurzoru hiritar ezineko sailkapena duela eta paisaieko babeseko zermuguapena, lurzoru horretan, bideak ireki edo zabaltzea oso baldintza mugatuta baimendu daitekela, soilik eta alde zurek dagokion paisaiarekisko erasanaren azterlana burututa.

JAKINIK 2004ean emandako baimena, bidea konpontzeko ahalbideratzen zuela, eta , burutu diren lanak, konponketa solila izan ezik, bidea zabaldu eta honi izaera aldatu zaiola, udal jabetzako lurraz baliatuz lan hauek egiteko, horrelako obrak egiteko udalaren adostasuna ezinbestekoa dela.

KONTUAN HARTUTA Lurzoruaren Legearen 178. artikulua eta Diziplinaren Araudiko 1.an zerrendatutako eraikuntzako eta lurzoru-erabilerako jarduerak udalaren lizentzia izan beharko dutela ezartzen duela Lizartzako Udalaren Plangintza Arau Subsidiarioetako 25. artikulua;

KONTUAN HARTUTA Apirilaren 9ko 1346/76 Errege Dekretuko 178. eta 184. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoa (Lurzoruaren Erregimenari eta Hiri Antolaketari buruzko Legearen Testu Bateratua onesten duena) eta 2187/1978 Errege Dekretu bidez onetsitako Hirigintzako Diziplinari buruzko Araudian ezarritakoa.

KONTUAN HARTUTA Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1. artikuluan ezarritakoa.

Alkate-udalburu honek,

HAU ERABAKI DU:

Lehenengoa: Angel Garrido Alonso jaunak Goltzur zelaiko zonaldean, Gazteluko mugatik Goltzur baserriraino doan pista bat udalaren baimenik gabe egiteagatik, urratutako hirigintza-ordena leheneratzeko espedienteari hasiera ematea.

Hilabete bateko epea ematen zaio, ebazpen hau jakinarazten denetik zenbatzen hasita Aldatutako gainazala bere jatorrizko egoerara berreskuratzeko.

Bigarrena: Udalaren Zerbitzu Teknikoei sortutako kalteak eta konponketan lanen kostuaren balorazioa burutzea, horietan ardura dutenek ordain ditzaten.

Hirugarrena: Dagokion udal-baimenik, lurzoru hiritar eziekan, paisaieko babeseko zermugapean, bidea ireki eta zabaltzeagatik, arauak haustearen ondoriozko zigor-espedientea irekitzea. Angel Garrido Alonso jaunak, lanak hartu dituen lurraren jabe izateagatik, jo da arduraduntzat.

Horiei aditzera ematea Hirigintzako Diziplinaren Araudiko 90. artikuluan jasota dagoen zigorra ezar dakiekeela, hori guztia prozeduraren instrukzioetik etor litekeenari kalterik egin gabe.

Laugarrena: Zigor prozeduran instrukzio-egile izendatzea Ana Zabala Garmendia andrea, udalaren idazkaria.

Aditzera ematea espedientea ebazteko eskumena duen organoa udalaren alkate jauna dela, lurzoruaren araubideari eta hiri-

antolamenduari buruzko premiazko neurrien martxoaren 6ko 5/1998 Legeko 11,1. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Bosgarrena: Ebazpen hau doakionari helaraztea, jakinarazpen hau jasotzen denetik 15 eguneko epea izango duela alegazioak egiteko eta egoki irizten dituen agiriak eta informazioak, edo hala badagokio, erabili nahi dituen baliabideak zehaztuz probak, aurkezteko jakinaraziz.

Seigarrena: Izapide bat baino ez denez, ebazpen honen aurka ez dago errekurtsorik jartzerik, egoki irizten diren ekintzen kaltetan gabe.

MARIANO URBIZU – PINUEN AUZIA

IKUSIZ.- 2005eko martxoaren 21ean Alkatetzak luzatutako Dekretua, non, Mariano Urbizu Zabala jaunari, hilabeteko epea ematen zitzaion, 1 Poligonoko 27 Partzelan, landatutako pinuak ateratzeko, bestela ordezkatzeko egiteratze-eraz egingo zela, gastuak interesdunaren gain joango zirelarik.

IKUSIZ.- Udaleko zerbitzu juridikoek gai honi buruz luzatutako txostena.

KONTUTAN HARTUAZ.- Mariano Urbizu Zabala jaunak, Lizartzako Arauetan, azaltzen den 1. Poligonoko 27 partzelan, eginiko pinu landaketak, eta Lizartzako Planeamenduko Arau Ordezkatzaileetan (21. bis art.)ren arabera, aipatutako gunean, bertako ez diren hosto iraunkorra duten zuhaitz moten landaketa masiboa, debekaturik dagoela.

KONTUTAN HARTUAZ.- Lizartzako Udalak 2005eko martxoaren 21ean hartutako erabakian, Mariano Urbizu jaunari hilabeteko epea eman zitzaiola, egindako lanak legezatzeko, alegia, landatutako pinua atera, eta horrela egin ezean,

Lizartzako Udalak aterako zituela, exekuzio ordezkatzailan, gastuak interesdunaren gain joango direlarik, ohartaraziz.

KONTUTAN HARTUAZ.- Alegazioak egiteko emandako epearen barruan, Urbizu jaunak idatzia aurkeztu zuela Udalaren aurrean, martxoaren 21eko Alkatetza Dekretua bertan bera uztea eskatuz.

KONTUTAN HARTUAZ.- Udaleko zerbitzu juridikoek gai honi buruz luzatutako txostenean, Urbizu jaunak egindako alegazioak ezestea proposatzen dela, alegatzaileek emandako kasua eta Lizartzakoa ezin direlako berdindu. Lizartzan, Udalak ez dihardu mendien, ustiapenen eta baso-zerbitzuen arloan, Konstituzioari, Euskal Autonomia Estatutuari eta Lurralde Historikoen Legeari jarraiki, Foru Diputazioaren eskumena baitira. Udalak dihardu hirigintza eta ingurumenaren arloan duen eskumen-ahalmena duelako, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluan ezarritakoa betez.

KONTUTAN HARTUAZ.- Emandako hilabeteko epea pasa dela Urbizu jaunak, egindako lanak legeztatu gabe, Udalak agindu bezala, bainan, errekurtsua berriro aurkeztu zuela zera eskatuaz:

“1 Poligonoa, 27 partzela lur sailan dauden landareak bertan uztea hurrengo negurarte. Landaketak egiteko garai onena negua izaten delako eta bitartean beste lur zati bat prestatu behar dudalako”.

KONTUTAN HARTUAZ.- Eskaera hori onartuaz, udalak epe hori igarotzen utzi zuen.

KONTUTAN HARTUAZ.- Urbizu jaunak eskatutako epea igaro dela, eta pinuak ez dituela atera.

KONTUTAN HARTUAZ.- Toki Erregimenaren Oinarri Legearen 21.1 k) eta 68.1 artikulua xedatutakoaren arabera.

ERABAKI DUT:

- 1.- Mariano Urbizu Zabala jaunari berriro, HILABETEko epea ematea, landatutako pinua atera dezan.
- 2.- Honela egiten ez bada, Lizartzako Udalak ateratzea, exekuzio subsidiarioan egingo du, gastuak interesdunaren gain joango direlarik, udalak eginiko balorapenaren arabera.
- 3.- Erabaki honen aurka ezin da helegiterik ezarri, beste erabaki irmo baten exekuzioa bai da. Hala ere legeak ematen dizkion bideak erabil ditzake.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, goizeko bederatziak direnean.